

AIARALDEA *hemen*



ERREPORTAJEA:
Greba Feminista Orokorraren ostean ere, "zaintza eskubide kolektiboaren alde borrokan" 2-3 or.

ELKARRIZKETA:
"Gazteon ikuspegia txertatu nahi dugu Mugimendu Feministan" 6 or.



Aurrez aurre eta batera

ESKUZA-LARRAZABAL



AIARALDEA 6

Aiaraldeko Gazte Talde Feminista sortu berri dute eskualdean

Herri desberdinetako gazteak batu dira, Mugimendu Feministan eragiteko asmoarekin

URDUÑA 13

Harresia berreskuratzeko lanak bisitatu dituzte Jaurlaritzako ordezkariak

Eusko Jaurlaritzak 675.000 euroko diru-laguntza eman dio tokiko erakundeari lanak gauzatzeko

OKONDO 18-19

Altxa Burua Okondo taldea sortu dute herriko hainbat gurasok

Smartphonearen erabileraren adina atzeratzeko asmoa dute aurkeztu berri duten ekimenarekin

KULTURA 22

Lagunez inguratuta aurkeztu dute Burbuilak taldearen lehen diskoa

Emanaldi berezia eskaini zuten Izar eta Irati Mendigurenek eta Izaskun Del Cerrok ostiralean Amurrio Antzokian

KIROLA 28

200 parte hartzaile baino gehiago izango ditu XXXIV. Aiarako Birak

Guztira 35 taldek hartuko dute parte, eta lehendabizikoz Orozkoko errepideak zeharkatuko ditu lasterketak

erreportajea



Milaka pertsona atera ziren kalera 2023ko azaroaren 30ean; Greba Feminista Orokorrekin bat eginez Aiaraldea.eus

Urrats berriak zaintza sistemaren aldeko borrokan

Azaroaren 30eko Greba Feminista Orokorretik hiru hilabete igaro dira, eta Aiaraldeko Mugimendu Feministak "zaintza sistema publiko komunitarioaren" aldeko borrokan jarraitzen du. Bide horretan tokiko erakundeekin prozesua abiatu du Amurrioko Emakumeon* Sareak.



Testua **Aimar Gutierrez Bidarte**

Egun historikoak bezain garrantzitsuak izan ohi dira horien bihar-ramunak ere, eta azaroaren 30eko Greba Feminista Orokorra ez da salbuespena. Euskal Herriko Mugimendu Feministak eta gehiengo sindikalak deituta milaka eta milaka lagun atera ziren kalera "zaintza sistema publiko eta komunitario" baten beharra erdigunean jartzeko.

Mobilizazio jendetsuak eta irudi gogoangarriak utzi zituen iazko azaroko grebak. Greba eguna ez zen ezarren amaiera izan, zaintzak aitortu eta duintzeko bidean mugarrira baizik. Euskal Herriko Mugimendu Feministak denbora luzez landutako prozesuaren mugarrira, 2023ko azaroaren 30az geroztik ere aurrera jarraitu duen prozesua.

Aiaraldean ere

Erantzun zabala jaso zuen Aiaraldean azaroaren 30eko deialdiak. Bego Renteria eta Marisa Aldama eskualdeko zaintza sektoreko langileek "harrotasunez" gogoratzen dute mobilizazio eguna. "Zaintza sistema publiko baten beharra kalera atera genuen lehendabiziko aldiz. Gaia erdigunean jarri zenetik egoera asko azalerratu dira. Kontuan hartu behar dugu zaintza sektorean lan egiten duten askok erabateko esklabotza egoeran daudela, eta hori ikustaraztea ezinbestekoa da", azaldu diote Aiaraldea Komunikabideari.

Greba igarota ere zaintzak duintzeko borrokan tematuta jarraitzen dute Renteriak eta Aldamak; Amurrioko Emakumeon* Sareko kideak dira biak, eta grebako aldarrikapenak herrian lurreratzeko lanetan

dabiltza bertan: "Bide horretatik jarraitu behar dugu. Greba hasiera baino ez zela aldarrikatu genuen, lanean jarraitu behar dugu".

Zaintzen krisia agendara

Iragan otsailaren 20an, Denon Bizitzak Erdigunera plataformaren baitan antolaturik, agerraldia egin zuten Euskal Herriko eragile feministek Bilbon. Greba feminista orokorraren ostean erakundeen partetik "neurriko erantzunik" jaso ez dutela salatu zuen mugimendu feministak, eta "zaintzen krisia agenda politiko eta sozialean mantentzea" exijitu zuten.

Amurrioko tokikotasunetik ere sentsazio berdina daukate Bego Renteriak eta Marisa Aldamak: "Ohartzen ari gara politikariak zaintzari garrantzia emateko diskurtsoaz jabetu direla; baina, gure ustez, aurpegi garbiketa hutsa da, eta zaintzak erdigunean jartzeko guk eginiko aldarrikapenari kontraerasoa". Salatu dute erakundeetatik iragarki asko egiten direla, baina promesak ez direla inoiz materializatzen.

Euskal Herriko Mugimendu Feministak egin bezala, Amurriotik ere abiatu dute erakundeekin prozesua, "zaintza sistema publiko eta komunitarioa erdiesteko bidean".

Amurrioko esperientzia

Nolabait oinarri sendo batekin abiatu dute Amurrioren erakundeekin —Udal Gobernuarekin— prozesua. Amurrioko Emakumeon* Sarea hilabetero elkartzen da Udal ordezkariekin. "Greba Feminista Orokorrean aurretik ere hilabeteko maiztasunarekin elkartzen ginen Udalarekin. Ohikoan parte-hartze teknikaria eta berdintasun

erreportajea

zinegotzi eta teknikariak etortzen dira bileretara. Guk zerbitzu-sozialen sailetik teknikariren bat hurbiltzea eskatu dugu ere, baina oso lanpetuta daudenez ez dute koordinazio bileretara etortzeko astirik”, azaldu diote bertako kideek Aiaraldea Komunikabideari.

Zaintzarako Amurriion dauden baliabideak publikatzea eta bertako langileen egoera duintzea dute lan lerro nagusia Amurrioko Emakumeon* Sareak: “Gure ustez, erabat feminizatua den sektorea duintzeko, bertako lan-baldintzak hobetzeko eta erabiltzaileek jasotzen duten arretaren kalitatea bermatzeko publikazioa da estrategia eraginkor bakarra”.

Hain zuzen ere etxebizitza-komunitario bat eta Egunekeo Arretarako Landa Zentroa dira baliabide horiek. Azpiegiturak Udalarenak dira, baina horien kudeaketa pribatua da. “Eskatzen dugun lehenengo gauza zera da: baliabide horien kudeaketarako lizitazioa sortzen dutenean, lan-baldintzen gainean fokua jartzea eta baldintza onak exijitzea”, nabarmendu dute Renteriak eta Aldamak. “Alkateak aitzakiak jarri dizkigu soilik: publikatzea oso zaila dela, dirurik ez dagoela... Esan ziguten etxebizi-

“Ohartzen ari gara politikariak zaintzari garrantzia emateko diskurtsoaz jabetu direla; baina, gure ustez, aurpegi garbiketa hutsa da, eta zaintzak erdigunean jartzeko guk eginiko aldarrikapenari kontraerasoa”

tza-komunitarioko edota Egunekeo Arretarako Landa Zentroko emakumeak publikatzeko herriko beste eragileei kendu beharko litzaiekeela dirua. Uste dut ez gaudela A ala B egoera horretan inondik inora. Badaude bideak baina ez dago inolako borondaterik”.

Edonola ere, Amurrioko sareak gertutik jarraitzen ditu Udaletik ematen diren urratsak eta abiatzen diren egitasmoak: “Greba Feminista Orokorren testuinguruan, mozio bat aurkeztu genuen Udaltzanean eta honek onartu egin zuen. Grebako aldarrikapenak batu genituen mozio horretan. Udalak testua onartuta, bertan ezarritako neurrien aplikazioaren gaineko jarraipena egiten ari gara. Proposamena aurkeztu behar dute, eta guk emango diogu adostasuna Udalaren planteamenduari, ikuspuntu feminista txertatuz”.

Sarea hedatuz

Amurrioko Emakumeon* Sarea hedatzea ere dute helburu Renteriak eta Aldamak. Zaintza sektoreko langile gehiagorengana iritsi nahi dute, eta hauek aktibatu. Bereziki etxez etxeko langileengan jarri nahi dute arreta, “horiek baitira egoera prekarioenean daude-

Martxoaren 8ko biharamunean, martxoaren 9an, jarri du Aiaraldeko Mugimendu Feministak begirada; Faktorian egingo duten eskualdeko asanbladan

nak”. Bide horretan, eta azken urteko dinamikari jarraituz, Zaintzen III. Foroa antolatuko dute apirilean. Foroaren aurreko edizioetan testigantzei eman diete garrantzia, eta honako honetan zaintzarako baliabideetan jarri nahi dute arreta. “Zabalenetik zehatzenera goaz. Lehenengo foroan testigantza desberdinak bildu genituen, sentsibilizazioa ardatz. Baliabideen inguruan hausnartu nahi dugu, zer falta den eta zer behar den”, azpimarratu du Renteriak.

Martxoak 8

Ate joka dagoen Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna ere baliatuko dute “zaintzen negozioa” salatuz. Euskal Herriko Mugimendu Feministak mobilizazioak deitu ditu hiriburetan, eta Aiaraldean ere oihartzuna izango dute aldarrikapenek. Halaber, martxoaren 8ko biharamunean, martxoaren 9an, jarri du Aiaraldeko Mugimendu Feministak begirada. Egun horretan eskualdeko asanblada deitu dute Aiaraldea Ekintzen Faktorian, 10:30ean. Bertan “zaintza sistemaren aldeko borrokari” segida emango diote, mugarriak bezainbeste, prozesuak ere berebiziko garrantzia duelako.



Euskal Herriko Mugimendu Feministak salatu du ez duela grebaz geroztik erakundeen partetik “neurriko erantzunik jaso”. Aiaraldea.eus / Euskal Herriko Mugimendu Feminista

elkarrizketa



ARRANKUDIAGA ETA ZOLLOKO EMAKUME SAREKO KIDEEK ARRANKUDIAGA ETA ZOLLOKO EMAKUMEEN LEHEN TOPAKETA ANTOLATU ZUTEN OTSAILAREN 25EAN, ETA AURRERA BEGIRA JARRI DIRA ORAIN.



Testua
Txabi Alvarado Bañares

Iragan otsailaren 25ean egin zenuten Arrankudiaga eta Zolloko emakumeen lehen topaketa. Zer moduz joan zen?

Ainara Murguia Santin: Balorazioa ona izan da. Jendetza bertaratu da Arrankudiaga-Zollo izateko, eta azken ekitaldira (Mejillón Tigrearen ikuskizuna) kanpoko jendea ere gerturatu da, eta herriko are jende gehiago. Orduan ondo, ezta?

Nerea Zarate Aldama: Oso pozik gaude, bai. Balorazioa egin behar dugu oraindik, baina a *grosso modo* oso pozik gaudela esan daiteke.

Garazi Abrisketa Serrano: Bai. Ez digu oraindik denbora eman gure artean hitz egiteko (elkarrizketa topaketaren egunean bertan egin zen), baina espero genuen erantzuna jaso dugu, eta gehiago. Beti bezala, adin ezberdinetako emakumeak hurbildu zaizkigu, eta hori zen nahi genuena.

N.Z.A.: Anitza ere izan da. Ez gara betikoak izan, ezta ideologia konkretu batekoak ere ez. Hori ere pozgarria izan da, aniztasun hori bilatzen genuelako baita.

Olatz Beldarrain Goti: Nik uste dut bete ditugula egun honi begira genituen helburuetako batzuk. Asmoa bazen proposamen ezberdinak ateratzea urtean zehar lan-

“Denok dakigu denon bizitzetara buruz eta hori oztopo bat izan daiteke gai zehatz batzuk lantzeko orduan”

tzeko, eta atera ditugu batzuk. Beste helburuetako bat bazen egun polita pasatzea gure artean eta uste dut hori ere lortu dugula.

G.A.S.: Bai, hori zen helburua. Taldea osatzen genuenok nahi genuen normalean parte hartzen duen jendearen iritzia jasotzea, orain arte egindakoak baloratzeko eta jakiteko zeintzuk diren euren nahi eta beharrak hemendik aurrera, denon artean diseinatzeko urte honetako plangintza. Izan ere, batzuetan guk pentsatzen dugu gure ikuspegia oso konkretua dela, gure adineko emakumeen begiradatik...

N.Z.A.: Bai, gure errealitatea bakarrik ikusten dugula eta, azkenean, inportantea izan da ikustea besteen errealitateak eta beharrak.

G.A.S.: Ez dugu gure artean hitz egin, baina uste dut denok gaudela sintonia oso antzekoan. Sorpresa izan da ikustea interesak guztion artean konpartitzen ditugula, eta besteek ere badutela guk buruan geneukan hori lantzeko beharra. Beraz, topaketan arratsaldean egin duguna hori izan da: urte osoko plana diseinatzea.

Lehen topaketa izan da hau, baina Arrankudiaga eta Zolloko Emakumeen Sarea ez da orain sortu. Zein urrats eman dituzue orain arte?

G.A.S.: Ariketa hori egin dugu azken asteetan: noiz hasi ginen eta azken urteetan zein ibilbide egin dugun azter-

elkarrizketa

tzea. Topaketan bertan erakutsi ditugu 2015etik hona egin ditugun gauza guztiak, argazki zein bideo bidez.

N.Z.A.: Topaketan azaldu dugun bezala, beste mugimendu feminista batetik gentozen (Ugaokoa), baina ikusi genuen herrian bazegoela beharra identitate propioa izango zuen mugimendu bat eratzeko. Hortik sortu zen Arrankudiaga eta Zolloko Emakumeen Sarea. 2015ean apurka-apurka hasi ginen eta orain, atzera begiratzean, ikusten dugu gauza garrantzitsu asko egin ditugula, bide-lagun asko izan ditugula... eta topaketa hau baliatu nahi genuen alboan izan ditugun horiei omenaldia egiteko.

G.A.S.: Horregatik nahi genuen eurak oraingoan protagonista izatea eta esatea zertan egon diren eroso, zertan ez hainbeste... baina jendea oso eroso egon da, antza.

N.Z.A.: Beno, gero zabalduko dugu iradokizunen buzoia (barreak).

Urteko plangintza garatzeari ekin diozue. Zein urrats aurreikusten dituzue 2024rako?

O.B.G.: Ez dakigu oso ondo. Proposamen pilo jaso ditugu eta orain buelta bat eman behar diegu ideia horiei, ordenatu apur bat, lehentasuna eman batzuei... Badugu buruan elkarte ofiziala sortzea.

Maidar Gerrikaetxebarria Abrisketa: Martxoaren 8ra begira antolatzen hasi gara orain. Jendearen nahiak jaso ditugu eta orain horiei begira lanean jarriko gara.

N.Z.A.: Argi dugu emakumeak sartzeko bideak jarri behar ditugula. WhatsApp talde bat jarriko dugu martxan Arrankudiaga-Zolloko emakume guztiak informatuta egoteko egiten diren ekintzen inguruan. Horrez gain, egitura bat eratu nahi dugu, erasoan aurrean herri erantzun bat emateko.

A.M.S.: Garrantzia nahiko eman diogu horri eta hurrengo pausoa izango da horri begira jartzea.

G.A.S.: Ikusi da ere eguneratzeko beharra, feminismoaren esparruan non gauden kokatzeko, eta berritzeko gure oinarrizko jakintza hori. Gai ezberdinak atera dira: heriotzari buruzko mahainguru edo hitzaldiak egitea, zaintzaileei buruzkoak, genero disidentziei buruzkoak...

“Gai ezberdinak atera dira: heriotzari buruzko mahainguru edo hitzaldiak egiteak, zaintzaileei buruzkoak, genero disidentziei buruzkoak...”

O.B.G.: Elkartzeko guneak sortzea ere, irakurketaren bitartez...

N.Z.A.: Feminismoa eta kultura...

A.M.S.: Elkar-trukakek... gauza politikak!

Adin ezberdinetako emakumeekin aritu zarete. Zer egoerekin egin duzue topo? Ezberdina da Arrankudiaga-Zolloko emakumeen errealitatea udalerrri handi-goetan (Laudio edota Ugaon, adibidez) topatu daitekeenarekin alderatuta?

G.A.S.: Hemen, herri txikiagoa izanda, agian errazagoa da adin ezberdinetako jende gehiago batzea, hemen batzen garelako 65 urte dituen emakume bat 11 urteko beste batekin...

N.Z.A.: Era natural batean, gainera.

A.M.S.: Adin-tarte guztietako jendea etorri da egin ditugun ekintzetara. Egin ditugun deialdiak ere oso zabalak izan dira.

O.B.G.: Nik uste dut herri txikia izanda errazagoa dela horrelako espazioak sortzea, eta Ugaon edo Laudio bezalako tokietan badagoela beste errealitate bat pertsonen arteko harremanari dagokionez.

N.Z.A.: Behin eta berriz esan dugu topaketan: Arrankudiaga eta Zollo oso herri parte-hartzailea da. Medio gutxirekin jendeak gauza guztietan parte hartzen du, emakumeek batez ere. Zentzu horretan, erraza izan da guretzat.

G.A.S.: Oso modu naturalean ematen da. Azken urteetan ikusi dugu edozein ekintza antolatzeko bileretan emakumeekin egiten dugula topo gehienbat.

N.Z.A.: Hurbiltasun horrek ere badauka buelta gero: denok dakigu denon bizitzetako buruz eta hori oztopo bat izan daiteke gai zehatz batzuk lantzeko orduan.

Nola parte hartu daiteke sarean?

A.M.S.: WhatsApp taldea sortu dugu, eta bertan sartzeko nahikoa da gutako norbaiti eskatzearekin. Arrankudiagako jendeak badaki nortzuk garen, hurbilak gara eta gugana etortzearekin nahikoa da.



elkarrizketa

“Gure asmoa da Mugimendu Feministan gazteen ikuspegia txertatzea eta gazteen arazoak plazaratzea”



ANE SAUTUAK (Orozko) **ETA IZARO FONBELLIDAK** (Laudio) PARTE HARTZEN DUTE AIARALDEKO GAZTE FEMINISTA TALDEAN ETA AZALDU DUTE NOLA SORTU ZEN EGITASMOA ETA ZEINTZUK DIREN HELBURUAK.



Testua **Aitor Aspuru Saez**
Argazkiak **Naia Vallejo Torres**

Lehenik eta behin, zein da sortu duzuen taldea?

Ane Sautua: Gu Aiaraldeko Gazte Feminista Taldea gara, eta Euskal Herriko Neska* Gazteen Sarearen barruan antolatzen gara. Aiaraldeko herri anitzeko gazteak ari gara parte hartzen: Orozkokoak, Aretakoak, Laudioakoak, Urduñakoak, Amurriokoak eta Arespalditzakoak...

Aiaraldean badago da Mugimendu Feminista jadanik, zergatik sentitu duzue berezko taldea sortzeko premia?

Izaro Fonbellida: Horri buruz eztabaidatu dugu taldean. Ez dugu ulertzen Mugimendu Feminista talde itxia bezala, horren inguruan antolatzen den jende oro da parte eta guk modu naturalean ikusi dugu behar bat dagoela neska eta gainontzekoen aldetik. Horren inguruan antolatu gara.

Zein da, orduan, zuen harremana Mugimendu Feministarekin?

A.S.: Mugimendu irekia da feminista eta gure asmoa da gazteen ikuspegia txertatzea eta gazteen arazoak plazaratzea eskualdean, nolabait. Jarraituko dugu Mugimendu Feministarekin elkarlanean, baina beti gazteen arazoak mahai gainean jartzen.

Zein gai landu behar dira gazteen ikuspuntutik, zuen ustez?

I.F.: Orain pil-pilean dugu kirolaren munduari buruzko eztabaida. Berehala identifikatu genuen oso arrotz sentitzen garela mundu horretan, nahiz eta txikitatik parte hartu dugun. Jazarpena eta gure gorputzaren *kosifikazioa* gertatzen da maiz. Hori da gaietako bat askoren artean, tamalez.

Aipatu duzue eztabaidak izan dituzuela jadanik, horietako bat izan da izena bera, ezta?

A.S.: Bai, erakunde nazionala bera ere eztabaida horretan buru-belarri sartuta dago. Oraindik ere Euskal Herriko Neska* Gazteak du izena, baina orain sortu dugun taldean eztabaida hori izan dugu modu sakonean eta erabaki dugu Neska* kentzea. Berez, izen horrekin subjektu nagusia neskak direlako eta badaudelako genero disidente

gehiago, zeinak zapalkuntza jasaten duten. Genero disidente horiek ere barne bildu nahi ditugu eta erabaki genuen Aiaraldeko Gazte Feminista Taldea izatea hasieratik gure izena.

“Aiaraldeko Gazte Feminista Taldea gara, eta Euskal Herriko Neska* Gazteen Sarearen barruan antolatzen gara. Aiaraldeko herri anitzeko gazteak ari gara parte hartzen”

Nolakoa da zuen harremana Euskal Herriko Neska* Gazteak sarearekin?

A.S.: Urrian egin genuen Batearajotze topaketa nazionala eta han plazaratu zen aipatutako eztabaida. Bestalde, egitasmo nazionalak daude eta guk eskualdera ekartzen ditugu.

I.F.: Urrian hasi ginen biltzen eta modu naturalean sortu da dena eta Martxoaren 8ra begira gaude.

Zein izango da zuen ekarpena Martxoaren 8an?

A.S.: Aritu gara Martxoaren 8ko egitaraua prestatzen eta guk gure izenean abiatu dugu *moskeo* kanpaina kirolaren inguruan. Plazaratu nahi izan ditugu, gazteak garen neurrian, kirolean jasotzen ditugun erasoak eta jarrerak. Batu izan ditugu lekukotzak eta herrian plazaratu ditugu iragazkirik gabe. Hori izan da gure ekarpena eta Martxoaren 8an egongo gara Mugimendu Feministak prestatutako egitarauan.

I.F.: Ekimen deszentralizatuak dira eta herri bakoitzak izango du bere mobilizazioa. Guk, adibidez, Laudion parte hartuko dugu.

babestutako edukia

MARTXOAK 8 / EMAKUMEEN NAZIOARTEKO EGUNA

ZUETAZ HARRO



Ahaldundutako emakume bakoitzaren atzean ahalduntzera bultzatu duten beste emakume batzuk egon dira.



herriz herri

Aiara

Aiarateka Kultur Elkarteak aurkeztu dute, Luiaondoko eskola zaharrak eta udalerrria biziberritzeko

Testua
Aitor Aspuru Saez

Luiaondoko ama talde batek Aiarateka Kultur Elkartearen proiektua aurkeztu zuen iragan martxoaren leian. Ideia umeak autobusean utzi eta gero hartzen duten kafean bururatu zitzaizen eta iragan astean partekatatu zuten herri osoarekin. "Esko-

la zaharretako eraikinari oso gutxi erabiltzen dela ikusten dugu", adierazi dute.

Proiektuari berari dagokionez, luiaondoarrek anbizio handiko egitasmoa sustatu nahi dute. "Hainbat jarduera eta proiektu bultzatza tu nahi ditugu, bai adin berekoen arteko harremanak zein belaunaldi antzizko artekoak ehuntzeko helburua-

rekin". Aiarako kultura eta historia herritarrei modu ludikoan zabaltzeko asmoa dute ere, baita "sormena, euskararen erabilera, etikaren eta komunitatearen balioak, berdintasuna..." sustatzeko asmoa ere.

Horiek eta beste batzuk dira ekimenaren ardatzak, baina herritarrek eurek izango dute azken hitza, elkarlanean garatzeko ideia baita.

Korrika 23



JARRAIPEN
BEREZIA
AIARALDEAN!

Atari berezia:

Aiaraldea.eus/bereziak/korrika

Aurreko edizioetako argazkiak eta bideoak
Artxibo historikoa
Ibilbidea kilometro kilometro
eta askoz gehiago!

eta martxoaren 22an...

Zuzeneko kontaketa eta telebista saioa
Argazki galeriak
Bideo erreportajeak



Harro Herri Korrika! Harro Herri Aiaraldea!

AIARALDEA

KOMUNIKABIDE
FAKTORIA

www.aiaraldea.eus

Soloitza gaztandegi aiararra, Euskal Esnekigileen Elkarte sortu berriko kide



2020an sortu zen Arespalditzako Soloitza gaztandegia. Aiaraldea.eus

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Arespalditzako Soloitza gaztandegia Euskal Esnekigileen Elkarteko kide izango da aurrerantzean. Elkarteak 2023an sortu zuten bost ekoizleren ekimenari esker. Gaur gaurkoz 29 esnekigilek osatzen dute, eta guztien artean ehundik gora esneki produktu ekoizten dituzte. Elkarteak sektorea indartzea eta gizartearen esnekien interesa sustatzea du helburu.

Euskal Herriko esnekien aberastasuna aldarrikatu eta zaindu nahi du elkarteak, "lurraldean ondo errotutako sektore bat" indartuz. Elkartearen jaiotza mugarririk delako adierazi dute: "Elkarte aitzindaria da, hiru abeltzaintza-espezieen esneki eta esne mota guztiak ekoizten eta eraldatzen lan egiten duten euskal profesionalak elkartzen baititu lehen aldiz".

Elkartearen helburuak

"Sektorearen eta bertakoaren alde eginiko lana ezagutzera ematea, dibertsifikazioa ardatz eta indargune izanik", ho-

rrera adierazi dute Euskal Esnekigileen Elkarteko kideek hasi berri den urterako markatutako helburua.

Ekoizleak eta kontsumitzaileak hurbildu nahi dituzte, ekoizle guztien lana desberdina izanda ere ere, erakunde eta kontsumitzaileen aurrean batasuna adierazten.

Halaber, sektoreko profesionalen interesak, beste alor batzuetan ere defendatzeko bokatzea adierazi du elkarteak: "Profesionalen interesak ordezkatu eta gauzatu ditugu administrazioaren aurrean eta osasun-agintaritzaren eskudunekin koordinatzeko bitartekaritza eskainiko dugu. Kolektiboaren prestakuntza beharrak kudeatzeko plataforma gisa funtzionatuko dugu, elkartekideen teknika- zein enpresa-garapenerako baldintzak hobetzeko lan eginez".

Elkarteko ateak "zabalik dudelako" azaldu dute, interesa izan dezaketen Euskal Herriko gaitzako esne ekoizleentzako. Elkarteari buruzko informazio guztia Interneteko web orrian plazaratu dute.

Amurrio

Enplegua erregulatzeko espediente berria abiatuko du Tubos Reunidosek, iaz 56,6 milioi euroko irabazi garbiak izan arren



Langileek 2016an akziodunen aurrean egindako protesta baten irudia. [Aiaraldea.eus](#)

Testua
Aitor Aspuru Saez

Otsailaren 29an zabaldu zituen Tubos Reunidos enpresak iazko jardunaldiaren emaitzak eta benetan positiboak izan ziren akziodunentzat. Izan ere, negozio kopurua 533 milioira heldu zen, 2022an baino %3,7 gehiago. Prezioen gorakadak 56,6 milioi euroko mozkinak utzi zituen konpainian, hau da, 2022an baino %30 gehiago.

Ez dira berri onak

Akzioak dituztenek pozik egoteko arrazoiak badituzte ere, beharginen artean egoera ez da bera. Izan ere, 2023. urtean Aldi Baterako Enplegua Erregulatzeko Espedientearekin amaitu zuten eta hilabete honetan bertan berri-

ro egongo dira egoera berean, uztaile arte.

Sindikatuaren aburuz, enpresak tresna hori baliatzen du estrategia finantzario gisa, diru publikoa eta langabezia baliatuta etekinak hobetzera, nahiz eta egiturazko arazorik ez izan. Zehazki, martxoan indarrean egongo den espedientearekin, zortzi egin ditu konpainiak 2009tik.

Iragan astean Langile Batzordeak bozketa proposamena luzatu zien langileei eta 192 beharginek babestu zuten eta 75 langilek kontra egin zuten.

Proposamen horren arabera, sindikatuek ez dituzte onartzen enpresaren argudioak espediente abiatzeko. Edonola ere, ez dute horren kontra egingo epaitegian, honako akordio honetara helduta: Tubos Reunidosen ber-

matzea osagarrien bidez langileek hilero euren soldata gordinaren %83 jasoko dutela; espedientearen ondorioz egunero lan egin ez arren, beharginek aparteko soldatak eta opor kopuru bera mantentzea; espedientearen daudenak lan egitera joan behar izanez gero, enpresak 48 ordu lehena go jakinaraztea aldatuta hori.

ELA, CCOO, UGT eta LAB sindikatuek proposamena babestu badute ere, ESK-k eta CNTk oharrak plazaratu dituzte salatzen sinatutako konpromisoarekin oinarrituko eskubideei egingo dietela uko, salaketak jartzeko aukerari tartean. Halaber, ESK-k azpimarratu du lortutako onura horiek izateko, langileak desregulazio deiak betetzera derrigortu dituela enpresak, malgutasuna handituta.

Lurrazpiko aparkalekua eraikiko dute Aldai kaleko aparkalekua dagoen orubean



Mugikortasunari lotutako hainbat proiektu garatuko ditu Udalak. [Aiaraldea.eus](#)

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Aldai kaleko aparkalekua ordezkatzeko asmoa du Amurrioko Udalak. Egungo orube berdinean lurrazpiko aparkaleku bat eraikitzea da Tokiko Gobernuaren asmoa. EAJK eta PSE-EEk iragan astean aurkeztutako 2023-2027 Agintaldi Planaren barruan bildu dute egitasmoa, datozen urteetan gauzatzeko asmoz.

Aldai kaleko aparkalekuak ehun ibilgailuentzako espazioa du gaur egun, eta etorkizuneko lurrazpiko proiektuak beste hainbestereantzako tokia izango luke. Proiektuak, halaber, libre utziko luke aparkalekuak gaur egun okupatzen duen orubea, bertan beste proiektu batzuk garatzeko aukera ahalbidetuz.

Mugikortasun proiektuak
Honakoa ez da mugikortasu-

naren arloan Amurrioko Udalak esku artean duen proiektu bakarra. Epaitegien inguruan 55 plazako aparkaleku bat eraikitzeko proiektuak aurrera jarraitzen du. 2021ean Eusko Jaurlaritzak Elexondo kaleko 1.900 metro koadroko lur-saila lagatu zion tokiko gobernuari, 52.872,28 euroren truke, azpiegitura hori garatzeko. Honezkerok abiatu dituzte horri lotutako zenbait lan, Lucas Rey kaleko egokitzapena, tartean.

Halaber, aparkaleku honen kontrako ahotsak azaldu dira ere; Aiaracompost taldeak sinadura bilketa bultzatu zuen, adibidez.

Azkenik, Agintaldi Planean jaso bezala, autobus geltoki berria eraikitzeko lanei hasiera eman diete honezkerok. Araba kaleko biribilguneko markesina kendu, eta Amurrio Antzokiaren aurrean geratuko dira autobusak aurrerantzean, errepidearen bi noranzkoetan.

**DOAKO ETXEZ ETXeko ZERBITZUA:
URDUÑA, AIARA, AMURRIO...**

Okm produktuak · Garaiko frutak eta barazkiak
Egunero Iza okindegiko ogia
Pertsonalizatutako fruten eta barazkien saskiak

945 092 550 · Landako kalea 1, Amurrio · [f](#) [i](#) [t](#) @fruitadenda_selene

herriz herri

Laudio

“Ertzaintzaren sarekadak ez dira osasun publikoaren alde, argi eta garbi”

AITOR DE LA TORRE ARAMENDI ATXILOTU ZUEN ERTZAINZAK DROGEN KONTRA LAUDION EGINIKO AZKEN SAREKADAN. HERRITARRAK BERAK AZALDU DU BERE ATXILOKETAK EZ ZUELA ZERIKUSIRIK IZAN DROGEKIN, ZENBAIT AGENTEREN JARRERAREKIN BAIZIK.



Aitor De La Torre atxilotu zuen Ertzaintzak iragan otsailaren 24an [Aiaraldea.eus](#)

Testua **Aitor Aspuru Saez**

Otsailaren 24an Ertzaintzak drogen aurkako operazioa egin eta atxilotu zintuen. Zer gertatu zen zehazki?

Kalean nengoen eta emazteak deitu ninduen. Miatzen ari ziren taberna batean zegoen eta ez zeukan NANA eskura. Ni joan behar nintzen berresteko bere nortasuna. Heldu nintzenean polizia pilo zegoen taberna barruan, kanpoan... Ertzain batek galdetu zidan ea nor nintzen eta handik kentzeko esan zidan bultzaka.

Nik azaldu nion identifikatzen ari ziren emakume baten senarra nintzela eta kenduko nintzela, baina ez bultzatzeko. Bazter batean jartzeko agindu zidan ertzainak eta berriro bultzatu ninduen.

Errepikatu nion ez bultzatzeko berriro eta eskatu zidan identifikatzeko. Nik aipatu nion berarekin ez nuela ezer nahi. Ertzain horrekin identifikatu ordez, beste baten gana joan nintzen eta nire burua identifikatu nuen. Nire izen-abizenak esan nizekion eta NAN zenbakia. Beste agente horrek hartu zituen datuak arazorik gabe.

Orduan itzuli zen beste polizia eta berriro jo ninduen bularrean.

Esan nion ez egiteko berriro, nahikoa zela eta, berriro egitekotan, ikusiko genuela zer gertatzen zen. Orduan ertzain horrek agindu zien besteei ni atxilotzeko.

Nire erantzuna izan zen: “Ados, baina eskuburdinak aurretik jarri, eta ez bizkarrean, lesio bat baitaukat besoan”. Hala ere, poliziak agindu zidan eskuak atzean jartzeko eta esan nion ezetz. Dozena erdi ertzain gehiago etorri ziren eta azkenean indarrez jarri zizkidaten eskuburdinak bizkarrean, aurrean jarri ordez.

Erresistentzia eta agintaritzaren kontrako eraso leporatu dizkidate. Bi agentek baino ez naute salatu, egia esanda.

Atxiloketaren ostean jarraitu zuten arazok, ezta?

Bai, anbulatoriora eraman ninduten ikusteko lesioen bat eragin zidaten edo ez, eta eskatu nien eskuburdinak apur bat askatzeko. Izan ere, oso gogor jarri zizkidaten eta mina egiten zidaten eskumuturretan. Eskuburdinen presioa arintzeko lanean ari zirela, konturatu ziren giltzek ez zutela balio. Ez batek, ez besteek, originalek ezta ere... Azkenean, suhiltzaileak etorri ziren eskuburdinak moztetara.

Gasteizen egon zinen?

Bai, Gasteizera eraman ninduten eta ohiko prozedurak jarraitu zuen: argazkiak egin, aztarnak hartu... Goizeko bostetan askatu ninduten.

Zu JEZ enpresako LABeko atal sindikalean zaude. Bertako kideek urtarrilean salatu zenuten horrelako sarekada bat egin izana, hain zuzen, osasun publikoaren aldeko mobilizazio handi baten ostean.

Bai, salatu genuen operazio hauek gazteak jazartzeko baino ez dutela balio. Uste dugu beste polizia eredu bat behar dugula, herriaren mesedera dagoena, eta ez bere aurka.

Otsailaren 24ko operazioan zu izan zinen atxilotu bakarra. Zein da egitasmo horien helburua, zure ustez?

Ez dakit, argi dago ez direla osasun publikoaren alde. Gazteak jazartzeko? Ziur. Edonola ere, beste arrazoiren bat egon behar da, ez dagoena agerian. Baina, argi eta garbi, osasun publikoaren mesederako ez da tabernetan dauden gazteak miatzea. Hori eginda gazteria kriminalizatzen da solik, eta ez da drogen salmentaren aurka ezer egiten. Sarekada gehienetan ez dute ia ezer aurkitu.

Laudio Institutuak 72 eguzki plaka instalatu ditu frontoiko teilatuan



41 kWp ekoiztea lortuko dute instalazioarekin. [Aiaraldea.eus](#)

Testua **Aitor Aspuru Saez**

Laudio Institutuak 72 eguzki plaka instalatu ditu frontoiaren teilatuan eta 41 kWp sortuko ditu horri esker.

Esku-hartzeari aurre egiteko, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak Europar Batasunetik jasotako dirulaguntza emango dio ikastetxeari: 31.050 euro, hain zuzen ere. In-

bertsioaren kostua, BEZa barne, 44.082,72 eurokoa izan da eta bi urtetan amortizatzea aurreikusi dute.

Zuia Ingeniaritza enpresak jarri du azpiegitura. Urtarrilean hasi zizuten lanak eta otsailaren 14tik dau- de abian.

Aurretik ere ikastetxeak bazituen azpiegitura fotovoltaikoak, baina ez barne kontsumorako, Energiaren Euskal Erakundeari saltzeko baizik.

25,3 milioi euroko aurrekontua onartu du Laudioko Udalak

Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Otsaileko Udal Osoko Bilkuran onartuziren Laudioko Udalaren aurtengo aurrekontuak. 25,3 milioi euroko plangintza ekonomikoa izango da, iazkoa baino %1,38 handiagoa.

Dena dela, aurrekontuaren zati handi bat definitzeko dago oraindik. Udal gobernua berak jakinarazi du atzo onartutakoa “aurrekontu orokorra” baino ez dela, eta “izaera tekniko nabarmena” duela. Datozen asteetan zehaztuko dute inbertsioen atala, behin jakinda 2023. urteko kitapenak zenbat diru uzten duen soberakin moduan. Aurreratu dutenez, “partaidetza prozesua” jarriko dute abian martxoaren amaieran, eta bertan zehaztuko dute zertan eta nola inbertitu. “Udalerriko aurrekontu-politiketan auzotarrek eragin eta erabaki dezaten, erabakigarria izango da auzoko batzarretan eta kontseilu sektorialetan partehartzea”, nabarmendu dute. Orain

arte egin diren batzarretan ekarpen ugari jaso dituzte dagoeneko, eta aurreikusi dute horietako gehienak aurrera eraman ahaliko dituztela, Udalak zortzi milioi euro inguruko soberakina izan dezakeela kalkulatzeko dutelako.

Hala ere, aipatu bezala, 2023. urteko kitapena amaitzen denean jakingo dute zehazki zenbat dirurakin kontatuko duten. Hala ere, udal gobernua zehaztu du dagoeneko diru-partida batzuk nora bideratu, akordioa erdietsi baitu PSE-EErekin, alderdi horren hainbat proposamen aurrekontuan txertatzeko.

Guztira 404.260 eurotan baloratutako partidak proposatu ditu alderdi sozialistak, Gaztelekura, kultura programetara edota patio inklusiboetara diru gehiago bideratzeko, besteak beste. Alderdi jeltzaileak, bestalde, aurkako botoa eman zien aurrekontuei; Udal Gobernuak kontuen onarpena “eztabaidarigabeko tramite hutsa” bilakatu duela salatuz.

Aiaraldea

Palestinaren aldeko mobilizazioek ez dute etenik Aiaraldean



Laudion eta Amurrion egin dituzte ekimenak azken astean. Aiaraldea.eus

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Israelek Gazaren aurkako sarraskia abiatu zuenetik etengabeak izan dira elkartasun keinuak Aiaraldean, eta azken astean mobilizazio jendetsuak egin dituzte.

Amurrion, esaterako, elkarretaratzea egin zuten igandean Juan Urrutia Plazan. Eguraldi petralak ez zituen herritarrak gelditu, eta "genozidioa gelditzea" exijitu zuten.

Ehunka zapata-pare

Laudion, aldiz, ohiko mobilizazio ereduetatik aldendu ziren otsailaren 24an eginiko ekitaldian. Goizeko hamarretan ekin zioten Herriko plaza zapata-parez betetzeari, Israelek Palestinan azken hilabeteetan eraildako pertsonak oroitzeko. Zapaten inguruan bueltak ematen hasi zuten protesta ekimena, eta

mikro-irekia egin zuten jarraian. Laudio zein Aiaraldeko hainbat sortzaile zein bizilagun animatu ziren poesia, kantak edota diskurtso laburrak plazaratzera, Palestinaren aldeko aldarri kolektiboa osatzeko asmoz.

Ondoren, zapata guztiak poltsetan sartu eta Lamuza plaza mugitu ziren herritarrak. Bertako berdegunean atondu zuten monolitoa, eta hor pilatu zituzten oinetakoak. "Gaurko honetan, zapata bilketaren bitartez, errealitate lazgarri bat irudikatu nahi izan dugu", azaldu zuten ekimenaren antolatzaileek amaiera ekitaldian, "imajina ezazue zapata hauek bete behar zituzten pertsonak zuen ingurukoak zirela: lagunak, neba-arrebak, auzokideak, ogia saltzen dizuna, eskolan zure ondoan eseritzen zena".

Modu horretan nahi izan zuten irudikatu Israel Palestinan egiten ari den sarraskia, "nahi-

koa" dela aldarrikatzeko, eta nabarmentzeko Laudiotik ere posiblea dela gauzak egitea egoera horri buelta emateko. Ildo horretan "sinbolismotik harago" joateko deia luzatu zuten antolatzaileek, "kontzientzia zioa sustatu, mobilizazioa bultzatu eta eraginkorrak diren neurriak" sustatzeko. Ekitaldian salatu zuten ere, Euskal Herrian ere asko dira "Israel ekonomikoki eta politikoki babesten dutenak". Horren aurrean, estatu horren aurkako boikot, desinbertsio eta zigorren kanpaina jarri zuten "itsasargi" moduan; "bide erraza" ez den arren, "garaipen zerrenda luzea" erdietsi duelako. "Mundu-mailako mugimendu honetara batzera animatzen zaituztegu. Laudiotik gure aletxoak jartzeko lanarekin jarraituko dugu". Iaz sortu zen Palestinaren aldeko Laudioko herritar taldea, eta giza-katea izan zen antolatu zuten lehen ekimena.

Tubacex enpresako irabazi garbiek %79,5 egin dute gora eta 36,3 milioi eurora heldu ziren iaz



Tubacex enpresak Laudion eta Amurrion ditu fabrikak. Aiaraldea.eus

Testua
Aitor Aspuru Saez

Tubacex enpresako zuzendari-tzak online agerraldia egin zuen akziodunei 2023ko emaitzen berri emateko, eta albisteak oso onak izan dira eurentzat. Izan ere, iaz 852,4 milioi euroko salmentak izan zituzten, hau da, 2022an baino %19,3 gehiago.

Datu horiek 36,3 milioi euroko mozkin garbiak utzi dituzte konpainian, 2022ko emaitzak %79,5 hobetuta. Gainera, epe motzean ez dute aurreikusten joerak okerrera egitea, 1.600 milioi euroko eskariak metatu baitituzte.

Hala eta guztiz ere, enpresak iragarri du 2025erako plan estrategikoko berria prestatuko duela.

Diru sarrerei dagokienez, horrela banatu dira: %35 jatorri industrialeko produktuetatik, %24 gasa ustiatzeko produktuetatik, %19 pe-

trolia eskuratzeko produktuetatik, %15 merkatu berrietatik eta %7 *Powergenetik*.

Salmentak, gainera, nabarmen sakabanatu dira munduan: %43 Asia eta Ekialde Hurbilean —gasa atera eta lantzeko, gehienbat—, %33 Amerikan, %21 Europan —Iparaldeko Itsasoan bereziki—, %3 Afrikan —Tanzanian, Namibian, Mozambiken eta Hego Afrikan—.

Azpitarratu beharra dago Tubacexek lan gatazka oso luzea eta latza bizi izan zuela Aiaraldean 2021ean, ehun langile baino gehiago kaleratzeko asmoa baitzuen zuzendaritzak. Une horretan, enpresak adierazi zuen lanpostu horiek desagertu gabe, enpresaren etorkizuna bera kolokan zegoela.

Ordea, 2022an marka guztiak hautsi eta aurreko hamalau urtetan izandako emaitzarik onenak eskuratu zituzten. 2023an, aldiz, horiek ere gainditu dituzte.



**APIRILAREN
2TIK 6RA**
ASTE SANTUKO CAMPUSA

Living English Academy

ADINA: 3-10 URTE

9:30ETATIK
13:00AK ARTE

ERRESERBAK:
638 050 765

JOIN OUR
EASTER
EGG
CAMP

Aiaraldea

Aiaraldeko hogei langile kale gorrian gera daitezke Ugaoko Envases Universales enpresak 50 kaleratze iragarri ondoren



Ugaoko lantegian 108 beharginek egiten dute lan. Geuria.eus

Testua
Aitor Aspuru Saez

Envases Universales multinazionalak kolpe handia aurreikusitako Ugaon daukan lantegian eta 108 langiletik 50 kaleratuko dituela jakinarazi die sindikatuei. Albiste latza izan da beharginentzat, Endika Ibañez langileen ordezkariak adierazi duenez.

Egun Ugaon dauden behargin asko, gainera, Aiaraldekoak dira. Gutxienez hamar dira Laudiokoak, beste dozena erdi Amurriokoak eta badaude ere Aiara, Orozko, Okondo eta Urduñakoak.

Enpresak hilabetea dauka neurri hori negoziatzeko, baina Ibañezek azaldu du egoera ez dela oso baikorra: "Ia erretiratzear daudenak aurretik erretiratzeko neurririk ez dute ezta aipatu ere egin, nahiz eta logikoa izan. Badirudi deslokalizazio prozesua burutzear daudela, elikagaien ontzien ekoizpena Leonera bidalita".

Ugaoko fabrikari 50 behargin kaleratuko dituela jakinarazi die Envases Universales konpainiak bertako langileen ordezkariari

Antza, aurreko jabeak, Domiberiak, hasi zuen prozesu hori 2017an Leongo faktoria ireki zuenean. "Envases Universales taldeak abuztuan Ugaoko azpiegitura erostean ekoizpena jaitsi zen, baina oraindik ere etekinak daude. Hortaz, pentsatu genuen behin-behineko egoera zela, baina orain ikusi dugu aurretik pentsatutako estrategia zela", gaineratu du Ibañezek.

Gauzak horrela, kalera-tzeak egikaritzu gero, ekoizpena erdian baino gehiago murriztuko lukete eta ontzi industrialak produzituko litzukete soilik, eta ez elikagaienak. Momentuz, sindikatuak eta langileak bildu behar dira, nola erantzun adosteko.

Izan ere, pasa den astean heldu zitzaion Ugaon eta Montmelon enplegua erregulatzeko espedienteak abiatzeko asmoa eta atzo bertan argitu ziren enpresak Euskal Herrian 50 izango direla kalera-tuak eta 18 Katalunian.

Urduña

Urduñako harresia berreskuratzeko lanak bisitatu dituzte Udaleko eta Eusko Jaurlaritzako ordezkariak



Jaurlaritzak 675.000 euroko diru-laguntza eman dio tokiko erakundeari. **Irekia**

Testua
Aitor Aspuru Saez

Aurrera doaz Urduñako harresia berreskuratzeko lanak, Eusko Jaurlaritzak emandako diru-laguntzaren bidez. 675.000 euro eman zizkion erakunde horrek Udalarari obrak egikaritzeko 2022 eta 2023an, Berpiztu programaren barruan. Andra Mari parrokiaren eta harresiaren artean parke bat sortzea da Udalararen asmoa, bertako ondare historiko eta arkitektonikoari balioa emateko. Eszenatoki bat, pasabide bat eta lorategi bat eraikiko dituzte horretarako.

Lanen bilakaera gertutik ikusteko bisita egin zuten astelehenan Eusko Jaurlaritzako eta Udaleko ordezkariak. Bertan egon ziren Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburu den Bingen Zupiria eta Urduñako alkate Iker Santocildes, besteak beste.

Zupiriak azpimarratu zuen Urduñako hiria "toki oso esan-

guratsua" dela historikoki. Gauzak hala, oso garrantzitsutzat jotzen sailburuak "ondare historikoa berreskuratzea eta balorean jartzea", eta "denon artean" egin beharreko lana dela nabarmendu zuen, erakunde ezberdinen lankidetzarekin eta herritarren inplikazioarekin. Bide horretan kokatu zituen Jaurlaritzaren Kultura 2028 Plan Estrategikoa edota Aiaraldeko Lehenasuneko Jarduera Eremuko inbertsio plana.

Urduñako alkateak, bere aldetik, Eusko Jaurlaritzak eginitako ahalegina eskertu zuen, "Urduñako ondare historikoa balioan jartzeko eta bertan bizi diren pertsonen eta bisitarien gure iragana eta historia ezagutzeko aukera eskaintzeko".

1997an izendatu zuten Urduñako harresia Babes Berezi-ko Kultura Ondasun, Monumentu Multzo kategoriarekin. Bertan parkea eratzeko proiektua, aldiz, 2022an aurkeztu zuten.

QUICK PC REPAIR



Informatika argi eta erraz

ETXEZ ETXEKO ZERBITZUA
gainkosturik gabe

· Salmenta · Konponketak

· Informatika-ekipamenduen eta STen inguruko prestakuntza ematen dugu negozio eta etxetarako

· Bezeroaren premietara egokitutako fakturen eta tiketen diseinua, eta kudeaketa-programen diseinua

Galdetu PC eta ordenagailu eramangarrien **RENOVE PLANA**ri buruz

Dionisio Aldama 2, AMURRIO · 685 70 19 56 · 945 03 48 12
www.quickpcrepair.es · quickpcrepair@quickpcrepair.es

BABESTUTAKO ESPAZIOA



BERDINTASUNA ZURE ESKU

Martxoaren 8ak kalera aterako ditu beste urte batez Aiaraldeko bizilagunak. Eskualdeko Udalerrri desberdinetako Berdintasun Sailek zein Mugimendu Feministak hamaika ekimen prestatu dituzte Emakume Langilearen Nazioarteko egunaren testuinguruan. Ekintzak, ordea, ez dira ostiralera mugatuko.

Emakumeen eta berdintasunaren aldeko aldarriek hartuko dituzte bailarako kale eta plazak, ate joka dagoen Emakume Langilearen Nazioarteko egunarekin batera. Ekintza sorta antolatu dute eskualdeko udalerrietako berdintasun sailek, Aiaraldeko Mugimendu feministak eta beste hamaika eragile sozial eta kulturalek.

Martxoaren 8a izan arren egutegian letra larriz markatutako eguna, bailaran prestatutako egitaraua asteburu guztian luzatuko da, berdintasunaren aldeko aldarriak ahalik eta leku gehienetara iristeko asmoarekin. Datozen egunetako ospakizun eta ekimen guztiak Aiaraldea.eus atariko

agenda atalean daude ikusgai. Adin guztientzako hamaika ekintza prestatu dituzte udalek eta eragileek. Urtero bezala, hitzaldiak, antzerkiak, emakume-bazkariak, eta, nola ez mobilizazioak izango dira martxoko osagai nagusiak.

Baina berdintasunaren aldeko borroka ez da soilik martxora mugatzen, eta, bide horretan, Laia Eskolaren jarduna ezinbestekoa da. Eskualdeko Berdintasun Arloek osatzen duten ekimen bateratua da Laia, emakumeen ahalduntzea ipar orotariko ekintzak antolatzen dituen, herri txiki zein handietan.

MARTXOAK 1-15

Amurrio

UDAL LIBURUTEGIAN

Emakume eta emakume idazleen esposaketa.

MARTXOAK 4-8

Orozko

09:30 - 12:45 ESKOLAKO GIMNASIOAN

Ameli Ipuin-Kontalaria "Itsasoko sekretuak eta Ainarak"

MARTXOAK 8

Aiara

11:00 ALDAY EGOITZAN

Emakumeen ekarpenei buruzko hitzaldia Inma Roizekin.

18:00 FERIALEAN

Kontzentrazioa

Amurrio

11:00 JUAN URRUTIA PLAZAN

Berdintasunaren aldeko Standa. GOFeren Oinez proiektua, Sartu Arabak emana.

12:00 JUAN URRUTIA PLAZAN

Amurrioko Emakumeon* Sarearen Stand informatiboa.

19:00 JUAN URRUTIA PLAZATIK

Manifestazioa. Amurrioko Emakumeon* Sarea eta Mugimendu Feministaren eskutik.

Arrankudiaga-Zollo

16:30 PLAZAN

Aurpegi margoketa, murala eta herri apainketa puxika moreekin.

17:30 GIZARTE ETXEAN

"Neskak mutilak denok berdinak" Ipuin kontaketa.

18:00

Performance-aren prestaketa.

18:30

Emakumeon* argazkia.

19:30

Agerraldia.

Artziniega

18:00 FRONTOIAN

Emakumeen argazkiak ateratzea.



Aiarako Udala
Ayuntamiento de Ayala



AMURRIO
UDALA
AYUNTAMIENTO



Arrankudiaga-Zollo
Udala



AYUNTAMIENTO
ARTZINIEGA
UDALA

19:00 FRONTOIAN
Kontzentrazioa.

19:30 FRONTOIAN
Antzerkia. *Mujereando Cabaret*.

Laudio

12:00 HERRIKO PLAZAN
Alderdi politikoen ordezkariak martxoaren 8ko adierazpen instituzionala irakurriko dute.

13:00 HERRIKO PLAZAN
Herriko ikastetxeetako ikasleek "piezaz-pieza etorkizun morea eraiki" mosaikoa osatuko dute.

18:30 HERRIKO PLAZAN
Elkarretaratzea. Solastiar, Avillo, Jakaranda eta Etawasol emakume elkarteek deituta.

19:30 HERRIKO PLAZATIK
Laudioko Mugimendu Feministak deitutako manifestazioa.

Okondo

LIBURUTEGIAN
Kamisetak moreak.

17:00 ESKOLAN
Kontzentrazioa.

Orozko

19:30 ZUBIAUR PLAZAN
Kontzentrazioa, irakurketa eta Batukada Feminista, Matxintxu Elkarteak antolatua.

MARTXOAK 9

Aiara

17:00 MENAGARAICO ESKOLETAN
Micaela Portillari buruzko dokumentala, Menagaraiko Emakume Taldearen eskutik.

Amurrio

20:00 ANTZOKIAN
"Yo lo único que verdaderamente quise toda la vida es ser delgada" antzezlanak.

Laudio

19:00 LA MILAGROSA IKASTETXEAN
Zinema: Paul B. Preciado filosofo eta trans ekintzaileak zuzendutako "Orlando, mi biografía política".

Orozko

19:00 DONIBANE ARETOAN
Helduen antzerki publikoa "Control de la ira" Kreatiba.

MARTXOAK 10

Orozko

19:00 DONIBANE ARETOA
"Ainarak" pelikula.

MARTXOAK 12

Artziniega

18:00 LIBURUTEGIAN
Feminismoaren inguruko hitzaldia Neus Albertosekin.

MARTXOAK 13

Aiara

11:00 ARESKALDITZAKO EMAKUMEEN GELAN
Aiaraldea "FEMprende" 1. saioa.

Amurrio

18:00 NAGUSIN
Poesia errezitaldia, Amurrioko Literatura Taldearen eskutik.

Laudio

19:00 KASINOAN
"Ivanka" antzezlanak eta solasaldia.

MARTXOAK 14

Amurrio

18:30 NAGUSIN
"El envejecer de las mujeres en clave feminista" hitzaldia, Monica Ramos Tororen eskutik.

MARTXOAK 16

Laudio

20:30 KIROLDEGIAN
Kontzertua Bi Hotsak elkartearen eskutik.

Okondo

10:30-11:30 GAZTE LOKALEAN
Hilekoari buruzko tailerra.

MARTXOAK 17

Aiaraldea

IRTEERAK:
10:00etan Amurrioko Herriko Plazatik
10:00etan Laudioko Herriko Plazatik
Berdintasunaren aldeko eskualdeko V. ibilbide neurtua Luiaondoraino,

bertan hamaiketako egongo da.

Artziniega

15:30 FRONTOIAN
Emakumezkoen Artzikirola. Euskal Herriko I. txapelketa.

Orozko

19:00 DONIBANE ARETOA
"La hija oscura" pelikula.

MARTXOAK 20

Laudio

18:30 KASINOAN
Zineforuma: udalerriko adineko emakumeen 6 elkarrizketaz osatutako dokumentala.

MARTXOAK 21

Laudio

19:00 KASINOAN
Solastiar elkarteak "El Triunfo" antzezlanak aurkeztuko du.



BABESTUTAKO ESPAZIOA

MARTXOAK 22

Orozko

18:30 KULTUR ETXEAN (2. SOLAIRUA)
Mikroantzerkia "La que eres después de haber sido" Kuluxka Antzerki Elkartearekin.

Jarraian: Biodantza Terapeutikoa Begoña Arenale Puertarekin.

MARTXOAK 24

Orozko

19:00 DONIBANE ARETOA
"Una joven prometidora" pelikula.

Aiaraldea Komunikabideko hamabostekariko 16. eta 17. orrietako Agenda atalean jaso ditu atal honetan agertzen ez diren Aiaraldeko Mugimendu Feministak eskualdeko gainerako eragile feministekin batera publiko egindako martxoaren 8ko deialdiak



LAUDIO UDALA
AYUNTAMIENTO DE LLODIO



OKONDO
UDALA - AYUNTAMIENTO



Orozkoko Udala



AIARAKO KUADRILLA
CUADRILLA DE AYALA



Martxoaren 17an egingo dute Aiaraldeko **Berdintasunaren Martxa**

Urteroko hitzordua bilakatu den Aiaraldeko Berdintasun Martxaren edizio berri bat antolatuko dute aurten ere Laudioko Altxarrate eta Amurrioko Kaskagorri kirol elkarteek elkarlanean.

Aurtengo ibilaldia martxoaren 17an izango da, eta honezkerotik zabalduko dago izena emateko epea. Amurrioko Juan de Urrutia plazatik zein Laudioko Herriko plazatik abiatuko da martxa, 10:00etan. Bi ibilbideek Nerbioiko ibaiaren ertza jarraituko dute eta Luiaondo izango dute getzaleku. Ohikoan bezala, lehia gabeko proba izan-

go da. Martxak 12 kilometroko luzera izango du, eta Nerbioiko parke linealaren ibilbidea jarraituko du.

Izen ematea zabalik

Martxan parte hartunahi duen orok du zabalik dagoeneko izena emateko aukera. Laudioko Udaltetxean eta Amurrioko Kultur Etxean jarriko dituzte izena emateko postuak. Laudion 10:00etatik 14:00etara egongo da inskripzio-mahaia zabalik. Amurrion aldez 17:00etatik 19:00etara aste-

lehenetik ostegunera, eta 11:00etatik 13:00etara ostiralean. Inskripzioak 10 euroko kostua izango du eta, horrekin batera, kamiseta bat eta pin bat oparituko dituzte.

Izen emateko epea ibilaldiaren egunera arte (martxoak 17) edota plaza guztiak bete arte luzatuko da.

Ibilaldiaren ondorengo egunetan sari bana-keta egingo dute, batz besteko denborak kontuan hartuta. Laudioko Lezeaga Aretoa egintzako dute ekitaldia.

HITZALDIAK

03.06 Asteazkena

18:00 LAUDIO
KORRIKA BARRUTIK:
ESKUALDEKO
FURGONETEROekin
SOLASAEAN
Faktoria

03.06 Asteazkena

18:00 URDUÑA
EN ANDALUCIA OCCIDENTAL
NO HUBO GUERRA, SOLO
REPRESION
Memoria Historikoari buruzko
hitza Aldia
Alondegia

03.07 Osteguna

18:00 URDUÑA
ESCLAVOS DE ORDUÑA
(1937-1941)
Memoria Historikoari buruzko
hitza Aldia
Alondegia

03.12 Asteartea

17:00 LAUDIO
SEGURTASUNA INTERNETEN
Gaztetxoko zaharra

03.13 Asteazkena

16:30 AMURRIO
WIKIDATA: EMAKUMEAK
ANIMA ZAITEZ EKARPENAK
EGITEN
Amurrioko liburutegia

03.16 Larumbata

09:45 URDUÑA
ADRATAN: KULTUR
IBILBIDEA
Luiso Lopez, Jose Ignacio
Salazar, Eli Gutierrez
Foru Plaza

BESTELAKO JARDUERAK

03.09 Larumbata

10:30 LAUDIO
HEZKUNTZA TOPAKETA
Herri Hezitzaileen Sarea
ekimenaren aurkezpena
Kasinoa

03.10 Igandea

17:00 LAUDIO
DANTZASKE GORPUTZ
IRAULTZAILEA
Marta Energyren eskutik
Faktoria

03.14 Osteguna

18:00 AMURRIO
BIZKARSORO
Korrika kulturalaren barruko
ekitaldia
Amurrio Antzokia

03.15 Ostirala

EMAKUME LANGILEAREN NAZIOARTEKO EGUNA

03.08 Ostirala

14:00 LAUDIO
TUPER BAZKARIA ETA
BINGO MUSIKATUA
Laudioko Mugimendu
Feministak antolatuta
Herriko Plaza

03.08 Ostirala

19:00 URDUÑA
ELKARRETARATZEA ETA
BATUKADA
Foru Plaza

03.08 Ostirala

19:00 LAUDIO
ZAPI MOREEN DANTZA
Laudioko Mugimendu
Feministak antolatuta
Herriko Plaza

03.09 Larumbata

10:30 LAUDIO
ZAINTZAREN ALDEKO
BORROKAK DARRAI
Aiaraldeko Mugimendu
Feministaren asanblada
Faktoria

MUSIKA

03.16 Larumbata

20:30 LAUDIO
BI HOTSAK ABESBA TZAREN
EMANALDIA
Granja kiroldegia

03.16 Larumbata

21:30 AMURRIO
ZUTIKI! ETA HABEMUS
PAPAM
I. Raku Eguna
Juan Urrutia Plaza

03.16 Larumbata

22:00 LAUDIO
TULAREMIA, PSYLOCIBE,
BLANCO Y EN BOLSA ETA
TRES EN RAYA
Punk eta Trash kontzertua
Drumgorri Aretoa

KIROLA

03.06 Asteazkena


16:00 LAUDIO
ESKALADA TAILERRA
Berbalagunen ekimena
Latorroko rokodromoa

03.10 Igandea

08:00 ARRANKUDIAGA
MATXINKORTA MENDI
TALDEAREN ORIENTAZIO
IBILBIDEA
Arrankudiaga eta Zollo

Bertso-afaria


Aretako Kultur Etxean



Aretako Kultur Etxeko batzordeak martxoan antolatutako ekitaldi nagusia izango da hilaren 15ean 21:00etan egingo duten bertso afaria. Oihana Bartra eta Andoni Egaña izango dira bertsoak sortzeko ardura izango dutenak. Afariari dagokionez, "herriari bizia emateko asmoz, Tunel jate txeko jabeak, Juanekek, afaria prestatuko du", azalduid ute Kultur Etxeko batzordetik.

Raku Eguna ospatuko

dute Amurrion Gariokoitz Ibarrolaren omenez



Gariokoitz Ibarrola amurriarra 2020ko martxoaren 15ean zendu zen, COVID-19ak eragindako konfinamendua hasi berritan. Salbuespenezko egoera tarteko, ezinezkoa izan zen senide eta lagunentzako agur omenaldia eskaintzea. Hori dela eta, Raku Eguna antolatu dute datorren martxoaren 16an, "Gari behar bezala agurtzeko".

Martxoaren 16rako egun osoko egitaraua prestatu dute Gariren lagunek. Txibiarre mendira egingo duten ibilaldiarekin hasi-

ko dituzte jarduerak. 9:00etan Amurrioko Telefonikatik abiatuko dira. Herrira bueltatzerakoan bazkaria egingo dute Juan Urrutia plazan. Aiaraldeko Soinu Sistemaren musikarekin eta briska txapelketarekin girotuko dute bazkalostea. Arratsaldean, aldiz, musika-poteo batek zeharkatuko ditu Amurrioko kaleak. Egunari kontzertuekin emango diote amaiera. 21:30etik aurrera, Zutik! eta Habemus Papam taldeak igoko dira ohol-tza gainera.

Kartelera



LA MILAGROSA
Orlando, mi biografía política
MARTXOAK 09
LARUNBATA (3 euro)

19:00



AMURRIO ANTZOKIA
Pobres criaturas
MARTXOAK 10, 11
IGANDEA ETA ASTELEHENA (5 / 3,75 euro)

19:00



LA MILAGROSA
La memoria infinita
MARTXOAK 16
LARUNBATA (3 euro)

19:00



AMURRIO ANTZOKIA
Perfect days
MARTXOAK 17, 18
IGANDEA ETA ASTELEHENA (5 / 3,75 euro)

19:00

03.10 Igandea
10:30 LAUDIO
GELDIEZINAK GARA
Ganbegi Hockey taldearen Gardearen erakustaldi misto profesionala eta tenis erakustaldia
Gardeako kirol-gunea

03.16 Larumbata
10:00 AIARALDEA
V. BERDINTASUNAREN ALDEKO ESKUALDEKO IBILBIDE NEURTUA
Audio eta Amurrioko plazak

21:00 ARETA
BERTSO AFARIA: OIHANA BARTRA ETA ANDONI EGANA
Aretako Kultur Etxea

03.16 Larumbata
17:00 LAUDIO
DANTZASKE GORPUTZ IRAULTZAILEA
Marta Energyren eskutik Faktoria

INFO +
aiaraldea.eus

Aiaraldeko gertaerak mugikorrean jaso nahi?

HARPIDETU GURE KANALETARA!



Jaso Whatsappean eguneko edukiak, **688 848 152** zenbakira AIARALDEA GAUR mezua bidalita!



Batu Telegramera **t.me/aiaraldea** esteka bidez!



INFO+ www.aiaraldea.eus



elkarrizketa

“Nerabeak oso modu arriskutsu eta kezka garrian erabiltzen ari dira smartphoneak. Maiz gurasoak eta umeak ez dira kontziente”

ALTXA BURUA OKONDO TALDEAREKIN MINTZATU DA AIARALDEA KOMUNIKABIDEA JAKITEKO ZERGATIK PROPOSATZEN DUTEN ADINGABEEN ARTEAN SMARTPHONEAREN ERABILERA ATZERATZEA. ARRAZOI ANITZAK AIPATU DITUZTE: MENDEKOTASUNA, EDUKI DESEGOKIEN KONTSUMOA, ERABILERA OKERRA, BURU OSASUNA...



Testua
Aitor Aspuru Saez

Duela gutxi egin duzue publiko Altxa Burua Okondo sortu duzuela, nola sortu zenuten?

Zenbait gurasoren artean jarri ginen harremanetan, uste genuelako hamaika edo hamabi urte ez direla oraindik adin aproposak smartphoneak izateko. Jakitea guraso batzuek pentsamendu bera genuela oso interesgarria iruditu zitzaigun. Elkarrekin indarra egiteko aukera daukagu. Gizartean oso normalizatua dago hamaika edo hamabi urterekin, institutuko garaia heltzean, smartphonea ematea seme-alabari. Gure artean ere horrela pentsatzen genuen batzuek, baina adina hurbildu ahala, konturatu gara ez gurasook ez seme-alabak ez gaudela prest hori kudeatzeko. Eta, gainera, ez da beharrezkoa. Alternatibena bila hasi ginen, ez bakarrik tresnen aldetik, baita egoera iraultzeko ere. Horrela ikusi genuen urriaren amaieran hasi zela mugimendua. Bartzelonako Poble Nou auzunean abiatu zuten gurasoek. Elkartu ziren egoera normalizatu horri aurre egiteko eta hedatzen hasi zen Euskal Herrira heldu arte. Estatu Espainiarrean 30.000 familia inguru antolatuta gara Telegram edota WhatsApp aplikazioen bidez, lurraldeka, herrika...

Nolako harrera izan du ekimenak?

Nahiko ona. Bilera bat egin genuen eta hamabi familia bertaratu ziren. Helbide elektronikoa sortu genuen eta behala bi mezu jaso genituen harremanetan jartzeko. Batzuk hedabideen mezuak izan dira, baina Zaraobeko irakasle batek ere idatzi digu.

Zergatik sumatu duzue smartphone eta adingabeei buruz hausnartzeko beharra?

Batez ere, sortzen duen mendekotasunagatik. Ikus dezakegu jadanik telebistarekin gertatzen dela eta smartphonea da horren mailarik gorena. Behin emanda, ezin da atzera egin. Bestelako arazoak ere sortzen ditu: *Bullyinga*, harremanak izateko zailtasunak...

Hori saihestu nahian, hamabi edo hamahiru urtera arte telefonoa ez ematea proposatzen genuen askok, baina orain gehiago atzeratzeko beharra sentitzen dugu. Ez dakigu non dagoen muga, baina, momentuz, ez dugu eskura jarri nahi.

Smartphoneekin hamabost urte daramatzagu gizartean eta denbora tartea egon da ikerketak eta azterketak egiteko. Adituek diote hamabi urteko ume baten garunak ez duela gaitasunik horrelako tresna bat baliatzeko. Hori ondorioetatik aparte. Berez, itxaron beharko litzateke garunaren garapena nahikoa izan arte.

Adituen arabera, hamasei edo hamazortzi urte dira adin horiek. Hortaz, mugimenduaren helburuetako bat bada idatzi gabe dagoen arau hori hamabi urtetik hamasei edo

hamazortzi urtera atzeratzea. Inork ez du esan hamabi urterekin egin behar zela eta, nolabait, horrela egiten da, baina ikusita ondorioak nolakoak diren eta zein mendekotasun arazo sortzen dituen, nola isolatzen diren, depresio eta urduritasuna ekar dezakela... Atzeratzea ideia ona da.

Horrez gain, asmoa da atzeratzea erabakitzen duten familia eta umei babes ematea. Gu horrela hasi ginen laguntza bila. Umeek ez dezaten pentsatu bakarrak direnik, ez baitira bakarrak.

Okondon hamabi urte dituzten gazteen artean erdiak badauka smartphonea, baina besteak ez, eta ez du zertan.

Helburu orokor nagusi gehiago dituzue?

Beste bi xede dira hezkuntza zentroekin harremanetan jarri eta neurriak sortu *ciberbullyngaren* eta horrelako egoerei aurre egiteko elkarrekin eta erakunde politikoei gaia proposatzea, legeak bultzatzeko eta egoera arautzeko. Azken hori estatu mailan izan beharko litzateke.

Egitasmoaren hiru hankak dira. Familiekeuren kabuz ez dute aldaketa lortuko, ezta ikastetxeek edo ordezkari politikoei, baina hirurek elkarrekin arrakasta izan dezakete.

Horrez gain, trebakuntza ere beharrezkoa da, askok oparitzen baitute smartphonea jostailua izango balitz bezala, baina ez da. Hortaz, eman baino lehen kontziente izan behar dira zein arrisku dauden. Erabakia arduraz hartu behar da.

elkarrizketa

Esaten duzuenean hamabi urteko ume batek ez duela gaitasunik smartphonea kudeatzeko, ez duzue esan nahi gaitasun digitalik ez duenik, ezta?

Ez. Esaterako, hirurogei edo hirurogeita hamar urteko pertsonak, nahiz eta inoiz ez izan sakelakorik, tarte labur batean menderatzen dituzte. Gaitasuna edonork lor dezake.

Arazoa da umeek ez dakitela zer esan daitekeen WhatsApp talde batean eta zer ez, argazkiak atera eta partekatu daitezkeen ala ez... Ondorio legalak daude ere, ez baitira adinez nagusi argazkietan agertzen direnak. Zenbat orduz erabili ahal duten, zein ordura arte... Mendekotasuna sortzen du eta hori argi dago. Inolako jarraipena eta trabakuntza eskaini barik ematen bazaie umei smartphonea, edo berarekin egoteko aukera barik erabiltzen duen bitartean... Oso arriskutsua da. Guk ez dugu soilik adina atzeratzea proposatzen, trebakuntza jaso behar dugu gurasoak eta umeek, urtez urte neurtzeko zenbat denbora ematen duten gailuarekin, zein web orrialdetan, zein aplikaziotan, non erabiltzen duten —toki publikoetan edo komunetan edota logelan—... Prozesu bat izango da eta denboran mantenduko dena.

Zuetako batzuk irakasleak zarete, nolako eragina daukate smartphoneek ikasgeletan?

Ikastetxearen arabera. Oro har, debekatuta daude, baina askotan arazoak daude hori kontrolatzeko. Euren joera da erabiltzea beti eta horrek sortzen ditu borrorak, tirabirak... Ez dakite nola erabiltzen den ondo.

Esaterako, WhatsApp taldeak sortzen dituzte eta erabiltzen dituzte batzuk sartzeko, besteak alboratzeko... Txarto erabiltzen dute eta trebakuntza falta dago. Ematen dizkiete gailuak eta inork ez die azaltzen nola baliatu behar diren, zer dagoen ondo eta zer txarto. Oso tresna indartsua da eta kaltegarria izan daiteke.

Zuen hurrengo urratsa zein izango da?

Maiztasun zehatz batekin elkartuko gara eta gure independentziarekin bururatzen zaizkigun ekintzak joango gara antolatzen, bereziki, adin muga horietara helduko

“WhatsApp taldeetan oso modu desegokian izaten dituzte harremanak nerabeek eta horrek ondorio legalak ekar ditzake”

diren familiei bideratuta. Ikasturtea amaitu baino lehen informatu, gainean egon eta saiatuko gara ekiditen orain arte gertatu zaiguna. Informatuta badaude eta dauden alternatibak ezagutzen badituzte, hobe.

Adibidez, batzuek oparitzen dituzte telefonoak seme-alabak gero eta denbora gehiago daudelako etxetik kanpo eta eurekin harremanetan egoteko. Horretarako ez da beharrezkoa smartphonea, badaude daturik gabeko telefonoak edo harreman zerrenda murriztuak dituzten telefonoak... Ez dute mendekotasunik sortzen eta beharrak asetzeko aukera dago. Telefonoa zertarako erabili behar dugun pentsatu behar dugu. Baloratu behar ditugu gure beharrak, gizariteak edo teknologiak eragindako exijentziak diren.

Askotan presioagatik edo beldurragatik ematen da. Inork ez du bahi bere seme-alaba izatea smartphonea ez duen bakarra. Zer gertatuko da? Lagun guztiak egongo dira talde berean eta berari ez zaio informazioa helduko?

Mugimenduaren bitartez estatu mailako inkestak izan nahi ditugu egoeraren irudia izateko. Nola erabiltzen duten, nola erabili izan den smartphonea...

Sinadura bilketa ere sustatzen ari gara eskatzeko alderdi politikoei seriotasunez har dezaten gaia eta arautu dezaten legeen bidez. Guk Okondon nahi dugu ahalik eta modu zabalenean gure aurkezpen gutuna heltzea. Bi helbide utzi nahi ditugu horretarako. Alde batetik, Estatu Espainiarreko mugimenduaren webgunea: www.adolescencialibredemoviles.es Bestetik, gurea honako hau da: <https://sites.google.com/view/altxaburuaokondo/inicio>

Batu zaretenon artean zer kezka mota daude?

Gure seme-alabek ez dute telefonorik, baina euren lagun batzuek bai, eta konturatzen gara ikusten dituzten edukiak ez direla bat ere egokiak. Oso kezkarria da. Ez litzaiguke gustatuko gure seme-alabek eduki horiek kontsumitzea.

WhatsApp taldeetan ere modu desegokian izaten dituzte harremanak. Adibidez, besteen argazkiekin irudiak sortu eta WhatsApp taldeetan zabaltzen dituzte. Egiten ari den erabilera kaltegarria eta arriskutsua da. Maiz gurasoak ez dira kontziente, ezta umeak ere.



kultura



**“Oso ezberdinak
gara gure artean
eta horrek xarma
ematen die abestiei”**

ORTZI LARRORI ZORROZUAK, ILAZKI USSIA YURREBASOK, ERIK ALEMANY ARTETAK, EKHIOTZ SANCHEZ MARTINEZEK ETA IRATI USIA OLAGUENAGAK OSATZEN DUTE ZINKHA TALDEA. URTE HASIERAN AURKEZTU ZUTEN PROIEKTUA, ETA HIRU ABESTI ETA BIDEOKLIP BAT PLAZARATU DITUZTE DAGOENEKO.



Testua
Txabi Alvarado Bañares

Urte hasieran aurkeztu zenuten Zinkha taldea, baina proiektuak denbora nahikotxo darama labeen. Nolakoa izan da aurretik eginiko lan hori?

Erik Alemany Arteta: Proiektu hau sortu zen lehen Ekhiotz, Ortzi eta hirurok geneukan beste proiektu bati amaiera eman genionean. Guk argi geneukan beste zerbait egin nahi genuela. Aurreko proiektuan gehienbat bertsioak lantzen genituen eta bagenuen nahia proiektu bat sortzeko non joko genituen abestiak gureak izango ziren. Irati aurretik ezagutzen genuen, beste proiektu-saiakera batean gurekin egon zelako, eta Ilazki betiko laguna da.

Elkartu ginen, urtebete pasatxo eman dugu lanean, eta prest gaude aurrera egiteko.

Hiru abesti atera dituzue momentuz, baina badituzue gehiago eta zuzenekoak prestatzeari ere ekin diozue. Zein puntutan dago talde une honetan?

Irati Usia Olaguenaga: Hasi ginenean gure lehenengo abestiak konposatzeari ekin genion, eta une horretan ez genuen gure estiloa guztiz definituta. Uste dut horretan gabiltzala apurka-apurka. Une honetan hamahiru abesti inguru izango ditugu, guztion artean sortutakoak, bakoitzak bere alea jarrita. Horretan gabiltza orain.

E.A.A.: Hiru abesti plazaratu genituen, badakigulako gaur egun sare sozialetan zabaltzen egiten dela oihartzuna. Horregatik, lagin moduan grabatu ditugu gure lehenengo hiru kantak. Bideoklipa ere plazaratu dugu, proiektua apur bat hedatzeko asmoz. Baina kontzertuak emateko prest ere bagaude. Ordubete inguruko *setlist* bat dugu.

Guztien artean sortu dituzue kantak. Nola egin duzue estilo propioa bilatzeko?

Ekhiotz Sanchez Martinez: Gutako bakoitzak estilo propioa dauka, eta horrek eragina dauka gure kantuetan, bakoitzak bere alea jartzen duelako, Iratik esan bezala. Horrek denak egiten du gure kantak horrelakoak izatea. Ezin dugu zehaztu zein den gure estiloa. Rocka dela bai, baina ditugun eragin ezberdinak islatzen dira abestietan.

Letrei dagokionez, bi gauza nabarmendu daitezke: euskararen aldeko hautua egin duzuela eta hainbat gai jorrazten dituzuela.

I.U.O.: Letrei dagokionez, gure hautua izan da euskaraz egitea. Jorrazten ditugun gaiak dagokionez, denetarik dago. Egia da kantatu batzuek mezu soziala dutela, azkenean hau badelako lekua mezu bat edo dena delakoa plazaratzeko. Baina gero bakoitzak bere modura interpretatu dezake letra bakoitza.

Rockaren aldeko hautua egin duzue jende askok musika estilo hori zaharkitua dagoela aldarrikatzen duen garaian.

Ilazki Ussia Yurrebaso: Guk erabaki dugu rock musika estiloa jorratzea, batez ere, identifikatuta sentitzen garelako berarekin. Nahiz eta bakoitzak bere alea jarri, guztiok jotzen dugu apur bat rockaren aldera. Guretzat askoz errazagoa da esparru horretan konposatzea eta abestiak egitea.

Ez da pentsatutako zerbait izan, horrela atera zitzaigun, eta listo.

Zeintzuk dira datozen hilabetei begira dituzuen aurreikuspenak?

E.S.M.: Gure plana bada kontzertuak prestatu eta ematea. Hemendik hilabete batzuetara grabatu nahi ditugu falta zaizkigun kantak, urte bukaeran plazaratzeko. Ez dakigu disko formatuan edo nola plazaratuko ditugun, baina grabatu eta kaleratu nahi ditugu.

Zer nolako izango da Zinkharen zuzenekoak?

E.S.M.: Aurreikuspen positiboak ditugu, baina inoiz ez dakizu nola joango den, jo arte. Dena den, guk gure alde-tik dena emango dugu, dena jarriko dugu oholtza gainean.

Belaunaldi ezberdinetako kideek osatzen duzue taldea. Zertan sumatu duzue horren eragina?

E.S.M.: Horrek eman diguna bada puntu aberasgarria. Hainbat belaunalditakoak izatea ona da guretzat, ikuspuntu ezberdinak topatzen ditugulako, bai letretan zein abestietan, eta hori oso aberasgarria da taldearentzat.

I.U.Y.: Gero ere nabaritzen da berez oso ezberdinak gara gure artean, eta horrek xarma ematen die abestiei. Oso nahasketa polita egiten dugu.

Zertan nabaritzen da hori abestien sorkuntzan? Nolako izaten da abestiak egiteko prozesu hori?

E.A.A.: Hori bada talde guztiei egiten zaien galderetako bat, eta ikusten dut talde guztiek erantzuten dutela gutxi gorabeherako formatu bat baliatzen dutela. Gure kasuan, uste dut denetarik egin dugula: baditugu denok elkarrekin eginiko abestiak; batek etxean zeozer egin, hona ekarri eta denon artean moldatutakoak; baditugu abestiak zeinetan musika egin dugun lehenbizi eta gero letra jarri; letra aurretik izanda eraikitako kantak ere... ez dut uste lan egiteko forma bakarra daukagunik. De-

“Hemendik hilabete batzuetara grabatu nahi ditugu falta zaizkigun kantak, urte bukaeran plazaratzeko”

netarik probatu dugu eta orokorrean pozik gaude lortu-tako emaitzekin.

E.S.M.: Laburbilduz, gutako edonork ekartzen du oinarri bat lokalera eta gero guztiok batera garatzen dugu, kantak sortuz.

Kanpotik ikusita, badirudi taldea sortzeko prozesua oso modu kontzientean garatu duzuela: sukalde lan asko egin aurretik, kantu sorta bat plazaratu gero... hemendik aurrera ere horrenbeste neurtuko dituzue emango dituzuen urratsak?

Ortzi Larrori Zorrozu: Bai, nahiko genuke hemendik aurrera ordena hori mantentzen jarraitzea. Ordena hori jarraitzea edo gauzak apur bat kontrolatuta izatera eraman gaitu aurreko talde batzuetan izandako esperientziak. Kasu honetan, bagenuen gogoak gauzak ezberdin edo “hobeto” egiteko, eta horretan gaude.

Oraindik ez duzue zuzenekoak eskaini. Zer nolako harrera espero duzue?

I.U.O.: Ekhiotzek esan duen bezala, nahiko positiboki ikusten dugu dena. Egia da gure abestiek publiko anitza izan dezaketela, jorratzen ditugun gaiak egunerokoak direlako. Bakoitzak bere kasara interpretatu ahal ditu, baina harremana dute egungo errealitatearekin.

Gure partetik, uste dut bilatzen dugun lehen gauza gozatzea dela, jendeari benetan transmititu ahal izatea egiten duguna, eta horretan gabilta.

I.U.Y.: Oraindik ez dugu kontzerturik eman. Lehena Amurrioko Gaztetxean izango da apirilaren 30ean. Oso gogotsu gaude kontzertuak eman eta zuen harrera ikusteko. Iratik esan duen moduan, disfrutatzea joango gara, eta eskualdean joko dugunez, uste dugu etxean egotea bezala izango dela.



kultura

Emanaldi berezia eskaini zuten Izar eta Irati Mendigurenek eta Izaskun Del Cerrok ostiralean Amurrio Antzokian, Burbuilak taldearen lehen diskoa aurkezteko. Aiaraldea.eus atarian dago ikusgai emanaldia osorik.

Lagunez inguratuta aurkeztu dute Burbuilak taldearen lehen diskoa

Argazkiak **Endika Diaz Garcia**

Otsailaren 1ean plazaratu zuen Burbuilak taldeak bere lehen diskoa, eta ostiralean aurkeztu zuten ofizialki Amurrio Antzokian. Emanaldi berezia izan zen, hainbat arrazoi medio. Alde batetik, Irati eta Izar Mendiguren Cosgayak eta Izaskun Del Cerrok osatutako hiru-

kotea ohituago dago oholtza txikiagoetan aritzea, eta horrelako areto bat baliatzeak aukera eman zien gauza berriak probatzeko ohikoan baliatzen ez dituzten elementu batzuekin (argiak edota eszenografia kasu). Bestetik, hiru musikariak ez ziren bakarrik egon eszenatokian, "lagunez inguratuta" baizik. Gauzak hala, hainbat sortzaile batu ziren kontzertura:

Jone Urruela bibolin-jolea, Patas de Gansa kolektiboko Leire Sanjurjo dantzaria, Uluka taldeko (Mendiguren Cosgaya ahizpen aurreko taldeko) kide izandako Garazi Abrisketa, Izaro Otaegi dantzaria edota Txema Isasi perkusiogilea. Aiaraldea Komunikabideak osorik grabatu zuen kontzertua eta ikusgai dago honezkerok Aiaraldea.eus atarian.



Jende ugari erakarri du Orduña Hiria Museoko kafe-makinen erakusketak



Irailaren 15era arte egongo da ikusgai. Miguel Brizuela

Testua
Aitor Aspuru Saez

Eguneroko objektuen erakusketa berria inauguratu zuten ostiralean Orduña Hiria Museoan. Hainbat lagun bertaratu ziren Kepa Aperribairen azalpenak entzutea. Izan ere, 250 kafe-makina jarri ditu ikusgai bildumazale basauriarrak, datorren

irailaren 15era arte. Hainbat herrialdetako piezak ikus daitezke: Frantziakoak, Ingalaterrakoak, Suitzakoak, Errusiakoak, Bielorrusiakoak, Ameriketako Estatu Batuetakoak, Mexikokoak, Venezuelakoak, Kubakoak, Txinakoak, Indiakoak, Tailandiakoak edota Marokokoak, besteakbeste.

Museoaren ohiko ordutegian bisitatu daiteke bilduma.

Irrintziak, folka eta zarata uztartu dituzte Gertrude Noise Meeting jaialdian

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Zarataren eta musika esperimentalaren Aiaraldeko tenplu bilakatu zen Orozkoko Artiñano Etxea iragan larunbatean. Gertude Noise Meeting jaialdiaren IV. edizioa egin zuten nekazal etxeko egongelan. Beste urte batez, musika proposamen esperimental eta arriskatu hainbat laginez gozatzeko aukera izan zuten bertaratuak.

Bost proposamenez goza-

tu ahal izan zuten goizetik arratsaldera luzatu zen ekimenen. Antuxuna-ren folk teknologikoak, A. Maiah-ren *drone noise* erritualak, Doppelhanger-en akordeoi garaikideak eta DJ Yuju-ren folk esperimentalak ohikoan kontzertuetan entzuten ez diren doinuak bete zuten Artiñano Etxea.

Horrez gain, Aiaiai irrintzilaria taldeko kideak ere bertaratu ziren jaialdira, Faktorian iaz garatutako sorkuntza proiektua plazaratzeko.

Erauntsi Eguna ospatuko dute martxoaren 23an, elkartasuna ardatz



Egun osoko egitaraua prestatu dute Erauntsi Dantza Taldeko kideek. Erauntsi Dantza Taldea

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

Urduñako Erauntsi Dantza taldeak egun osoko egitaraua prestatu du datorren martxoaren 23rako. Erauntsi Eguna deitu diote ekimenari eta hiriko txoko desberdinetan garatuko dituzte ekintzak.

Egun osoko egitaraua

Eguna dantza-poteoarekin abiatuko dute, eta 15:00etan herri bazkaria egingo dute Foru Plazan. Arratsaldea Dantza Plazarekin girotuko dute eta 20:00etan batukadak

Bildutako diru guztia ADELA elkartera bideratuko du Erauntsi Dantza Taldeak

zeharkatuko ditu Urduñako kaleak. Egitaraua borobiltzeko kontzertuak prestatu dituzte 21:30etatik aurrera Foru Plazan. Oholtza gainera Belgorri eta Cuatro Bancos amurriorrrak igoko dira. Jai-giroa luzatzearen ardura DJ Masa musika-jartzaile audioarrak izango du.

ADELA elkartea

Bildutako diru guztia ADELA elkartera bideratuko dute, ELA gaixotasunak eragindako pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko irabazi-asmorik gabeko erakundera.

40.
URTEURRENA

Arabako
BERTSOLARI
TXAPELKETA
2024
Finala

MARTXOAK 16, Larunbata 17:30ean
GASTEIZKO, Printzipal Antzokian



Aroa
Arrizubieta
Barredo



Asier
Otamendi
Alkorta



Iñaki
Viñaspre
Simon



Manex
Agirre
Arriolabengoa



Paula
Amilburu
Izargarai



Peru
Abarrategi
Sarrionandia

Gai-emailea: Oier Suarez Hernando

Aurkezle: Nieves Del Alamo Gil

www.bertsozale.eus - principalantzokia.janto.es

kultura

Antonio Oyarzabalek *La muse oubliée II* lana argitaratu berri du musika plataformetan



Antonio Oyarzabalek ibilbide oparoa garatu du azken urteetan. Aiaraldea.eus

Testua
Aitor Aspuru Saez

Antonio Oyarzabal laudioarrak bere bosgarren diskoa plazaratu berri du: *La muse oubliée II*. Lan horrek aurrekoaren ildo bera jarraitzen du eta hamazortzi emakume konpositoreen piezak berreskuratu ditu. Kasu batzuetan historian lehenengo aldiz grabatu ditu. Nadia Boulanger, Cecilia Chaminade, Florence Price, Ljubica Máric... garai eta toki ezberdinetakoak izanda ere, ezaugarri bera dute denek: emakumezkoak izateagatik ez zuten aitortzarik izan. Oyarzabalek azaldu du motibazioa topatzen duela emakume hauen bizitzak eta lanak ikeretzen, musikaren historiografiak baztertu baititu.

La muse oubliée II-k aurreko lanaren bidea hartu du eta aipatzekoa da lehenengo parteak oso kritika onak jaso zituela. Jadanik entzungai dago hainbat plataforma digitaletan eta IBS Classical disketez ospetsuak CD euskarrian argitaratuko du las-ter.

Isabel Coixeten saioa

Gauzak horrela, Isabel Coixetek zuzentzen eta aurkezten duen irrati saioaren ardatza izango da Oyarzabal igandean, 17:00etik aurrera RNE3 irratian. Aitortza ez zaio bat-batean heldu laudioarrari. Londresen bizi da bere ibilbideagatik eta iaz Estatu Batuetan, Frantzia, Aus-

trian, Arriaga Antzokian eta Royal Albert Hallen jo zuen, besteak beste. Aurki Wigmore Hallen aurkeztuko du lan berria, eta Présence Compositrices de Toulon jaialdian egongo da.

Classic FM

Antonio Oyarzabalen *La muse oubliée II* diskoak ez du asko itxaron behar izan kritika positiboak eta aitortza jasotzeko. Aste hasieran, Classic FM irrati independente ingelesak "Asteko aurkikuntza" izendatu du laudioarraren lana. Hedabide hori 1992an sortu zuten kapital pribatuarekin eta 4 milioi entzule baino gehiago ditu. Modu batean, Classic FMren sorreraren atzean bazegoen BBC 3 irrati publikoarekin lehiatzeko asmoa, eta, hain zuzen, komunikabide publiko horren saio garrantzitsuenean (*In tune* izeneko) ere elkarriketatuko dute zuzenean laudioarra martxoaren 6an.

Lan gehiago

Oyarzabalen sormen gaitasuna zabala denez, ekainean disko berria grabatuko du Madeleine Dring konpositorearen piezekin, eta horretarako Nicholas Danielekin sartuko da grabaketa estudioan. Horrez gain, nabarmenezkoa da iaz *El fin del silencio* diskoak ere burutu zuela, Hego eta Ertain Amerikako 30 emakume konpositoreen kan- tekin.

Fernando Muñoz Oviedoko Pastel Pintura Biurtekoaren VII. edizioko finalista izan da

Testua
Aimar Gutierrez Bañares

Otsailaren 15ean ireki zituen atea Oviedoko Pastel Pintura Biurtekoaren VII. edizioak. Nazioarteko 117 artistaren lanak bildu ditu pintura lehiaketak, guztiak pastel teknikarekin eginak. Fernando Muñoz amurriarrak aipamen berezia lortu du biurtekoan, eta bere izena finalisten zerrendan agertu da.

Paisaje leonés obra aurkeztu zuen Muñozek Oviedoko Biurteko lehiara. Izan ere, lotura estua du

margolari amurriarrak Gaztelako eskualde horrekin. Muñozen lana, gainerako obrekin batera, Oviedoko Calatrava Erakusketan eta Kongresu Jauregian egon da ikusgai iragan martxoaren 2ra arte.

Ibilbide artistiko oparoa

Fernando Muñozek Amurrioko Fernando Aranoa arte eskolanekin zion margolaritza trebakuntza jasotzeari, 1987. urtean. Lehenengo urte horietan Jose Luis Alvarez Velez de Vitoria, Izaskun Ibarretxe, Eva Isasi eta Montse Gonzalez izan zituen irakasle.

Denborarekin pastel-margolaritzan espezializatu zen; Gasteizen egindako ikastaroan aurrena, eta, gerora, Leonen jaso zuen formakuntzari esker. Leonen Jose del Riego margolaria izan zuen irakasle; gaur egun Oviedoko biurteko antolatzen duen ASPAS elkarteko lehendakaria, hain zuzen ere.

Hainbat izan dira azken urteetan Fernando Muñozek antolatutako erakusketak; Amurrión, Urduñan, Orozkon edota Gasteizen. 2022. urtean XXXVI. Amurrión Hiribildua pintura lehiaketako toki-ko saria irabazi zuen.

KOLORE

KOLORE!

Udaberrilekuak

BI TXANDA:

- Martxoaren 25etik 27ra
- Apirilaren 2tik 5era

ORDUTEGIA: 9:30-13:30

Lehenengo txanda: 40€ bazkideak / 50€ ez-bazkideak
 Bigarren txanda: 50€ bazkideak / 60€ ez-bazkideak
 Bi txanda: 80€ bazkideak / 100€ ez-bazkideak

IZEN EMATEA:
www.faktoria.eus-en edo 722 22 75 32 (Onin edo Aritz) telefonora deituz.

babestutako edukia

NEGUA

FAKTORIAN

MARTXOA



08, barikua
EMAKUME
LANGILEAREN
NAZIOARTEKO EGUNA.
GORA MARTXOAK 8!

#FEMINISMOA



10, domeka
11:00-13:00 · Faktorian
0-3 URTE ESPAZIO
LIBREA

BAZKIDEEK 5€ / EZ-BAZKIDEEK 7€

#HAZKUNTZA



10, domeka
17:00 · Faktorian
DANTZASKE/
GORPUTZA
POLARIZATUA
SOLASALDIA

BORONDATEA

#PLAZERRA
#GORPUTZIRAUTZAILEAK

15, barikua
19:00 · Faktorian
FAKTORIATXIKI GAUA
HAURRENTZAKO GAU-EGONALDIA
DOAN

#HAZKUNTZA
#HAURRENFAKTORIA

16, zapatua
17:00 · Faktorian
DANTZASKE/
GORPUTZA
POLARIZATUA
TAILERRA

BAZKIDEEK 30€ / EZ-BAZKIDEEK 32€

#PLAZERRA
#GORPUTZIRAUTZAILEAK

17, domeka
17:30-19:00 · Faktorian
ZIRKOA FAMILIAN
AKROBAZIA ATELIERRA

BAZKIDEEK: 2-3 KIDEKO FAMILIA 40€
(5€ KIDE GEHIGARRIA) / EZ-BAZKIDEEK 45€
(7€ KIDE GEHIGARRIA)

#ZIRKOA



22, barikua
KORRIKA
AIARALDEAN!
HARRO HERRI AIARALDEA!

#EUSKARA



23, zapatua

22:00 · Faktorian

KONTZERTUA/

ITHAKA

BAZKIDEEK 8€ / EZ-BAZKIDEEK 10€

#MUSIKA



kirola

“Espero dugu partida polita ateratzea eta, irabazten duenak irabazten duela, pozik ateratzea”



BINAKAKO SERIE B TXAPELKETAKO FINALAURREKOETAN MURGILDUTA DAUDE **ARKAITZ ESKUZA** ETA **IKER LARRAZABAL**. OSTIRALEAN ELKARREN AURKA JOKATUKO DUTE ZESTOAKO PILOTALEKUAN.



Testua eta argazkiak **Almar Gutierrez Bidarte**

Binakako Serie B Txapelketa-ko finalaurreko ligaxkan murgilduta zaudete buru-belarri. Orozkon jokatu dituzue azken partidak, eta biak atera zarete garaile. Nolakoak izan ziren Orozko norgehiagokak?

Arkaitz Eskuza: Finalaurreko bat izateko alde handiarekin hasi genuen partida. 10-1 irabaziz hasi ginen. Guk egindako akatsengatik, ordea, aldea murriztu zuten nabarmen, eta 18-10 markagailuarekin joan ginen atsedenaldira. Tentsio handiko partida izan zen, hasierako zatia kenduta. Akats gehiegi egin zituzten, eta agian horregatik irabazi genuen.

Iker Larrazabal: Guk desberdin bizi izan genuen. Gu izan ginen pixkat txarto hasi ginenak jokatzen, eurek akats gutxi egin zituzten lehenengo tantoetan. Serio jarri ginen eta tanto nahikotxo egitea lortu nuen. Pozik, irabazi izanagaitik.

Finalerako txartelaren bila zabilzate. Nola ikusi duzue zuen burua orain arte txapelketan?

A.E.: Hasieran kostata. Nire lehenengo txapelketa da hau profesional mailan. Julen Eguigurenek asko lagundu nau txapelketa aurrera ateratzen. Bigarren sailkatu ginen finalaurreko ligaxkara, eta azken jardunaldi hauetan oso gustura ikusten dut nire burua txapelketan.

Zu, Iker, iazko txapeldun izatearen presioarekin zatoz. Baldintzatzen du horrek?

I.L.: Presio pixkat badaukat ganean bai, jendeak uste du aurtan ere nik irabazi behar dudala berriro. Aurtengo txapelketan bikoteak desberdinak dira eta zaila da berriro irabaztea. Txapelketa oso luzea da, gorabeheratsu ibili gara; batzuetan ondo eta beste batzuetan txarto. Nire helburua finalaurrekoetara ailegatzea zen eta lortu dugu. Beraz, momentuz ondo.

Ostiralean, Zumarragan, elkarren aurka jokatuko duzue. Nola-ko neurketa aurreikusten duzue?

A.E.: Partida gogorra izango delakoan nago, erritmo handiarekin. Asteazkenean ondo prestatu behar dugu partida. Ahalegin du behar gara aurrean pilota gutxi entregatzen, akats gutxi egiten. Oso garrantzitsua da guretzat partida irabaztea.

I.L.: Guk berdin ikusten dugu. Arkaitzek esan bezala, akats gutxi

egitea da gakoa. Espero dugu partida polita ateratzea, eta, irabazten duenak irabazten duela, pozik ateratzea.

“Lagunak eta senideak partidatara etortzea asko eskertzen da, animoa ematen digute. Espero dut azken unera arte aldamenean egotea”

Ez da lehenengo aldia elkarren aurka jokatzeko duzuenaz, ezagutzen duzue elkar. Zer nabarmenduko zenukete bata bestearengandik?

I.L.: Defentsan oso ondo dabilen pilotaria da. Abiadura asko ematen dio pilotari ere. Hori nabarmenduko nuke batez ere: akats gutxi egiten dituela eta pilotari ematen dion abiadura.

A.E.: Uste dut gantxoa dela bere indargunea. Pilotak entregatzen badituzu aurrean, Ikerrek gantxoa sartuko du eta ezienzkoa izango da hauek eramatea. Ondo kokatuta egonda ere, arriskutsua da gantxo hori. Errematatzaile oso ona da.

Binakako txapelketan zaude murgilduta. Jarri zarete etorkizunera begira?

I.L.: Binakakoaren ostean, Buruz Burukoa da hurrengo txapelketa. Oraindik ez dut ezer entrenatu horri begira, baina hori dut burua. Lehenago, ordea, Binakakoan zentratzea dagokigu.

A.E.: Binakakoa ondo amaitzea da nire lehentasuna. Horren ostean udako sasoi prestatzeko hasiko naiz, oraindik ez dakit Buruz Burukoan arituko naizen. Nire helburua da ahalik eta partida onenak egitea datozen hila-beteetan.

Zestoara hurbilduko diren zaletu guztientzako mezurik?

I.L.: Etor daitezela eta disfrutatu dezatela pilotarekin! Frontoia beteta ikustea asko eskertzen da.

A.E.: Lagunak eta senideak partidatara etortzea asko eskertzen da, animoa ematen digute. Espero dut azken unera arte aldamenean egotea.

ARKAITZ ESKUZA



JAIOTZA DATA

2004-11-08

JAIOTERRIA

Laudio

ALTUERA

1,90 metro

PISUA

88 Kg

DEBUTA

2023-01-06, Astelehena pilotalekua (Eibar)

IKER LARRAZABAL



JAIOTZA DATA

2004-07-09

JAIOTERRIA

Olabezar

ALTUERA

1,83 metro

PISUA

82 Kg

DEBUTA

2020-10-18, Bizkaia Frontoia (Bilbo)

PROFESIONAL MAILAKO PALMARESA

2023 Binakako Promozio Txapelketako txapelduna



kirola

KICKBOXING-A

Espainiako Kickboxing Txapelketatik lau domina ekarri dituzte Laudiora asteburuan



Aiaraldeko hiru borrokalariak eta haien entrenatzailea. Aiaraldea.eus

Testua
Aitor Aspuru Saez

Pozik daude Markel Marcos, Jon Perez eta Julen Nacarino asteburuan Laredon izandako esperientziarekin. Hirurek parte hartu dute Espainiako Kickboxing Txapelketan eta lau domina bereganatu dituzte orotara. Marcosek urrezko bi sari jaso zituen 57 kilo azpiko kategorian *kick light* eta *light contact* diziplinetan, Jon Perezek zilarrezko domina irabazi zuen 63 kilo azpiko *kick light* kategorian eta brontzezkoa Julen Nacarinok, 79 kiloko *kick light* kategorian.

Hirurentzat lehen esperientzia ofiziala izan da, nahiz eta Jon Perezek behin parte hartu zuen Open batean. Perez eta Nacarino Hajime klubekoak izan dira aurretik eta bost urtez praktikatu dute kirola. Marcosek, aldiz, duela urtebete baino gutxiago ezagutu zuen *kickboxing*a.

Euren lorpenak balioan jarri ditu Iker Blanco Pikaza entrenatzaileak: "Markelek duela hamaika hilabete baino ez du entrenatzen. Julen Nacarinok hiru borroka izan zituen egun berean eta azkena lesionatuta egin zuen. Beraz, brontze horrek urrezko zaporea dauka. Jon Perezek, bere aldetik, Espainiako Txapelkunaren kontra galdu zuen finala eta aurkaria guztiz ezustean harrapatu zuen".

Sakrifizioa, baina sari handia

Hiru audioarrek entrenatzen dute Mecca Gyman, eta Iker Blanco Pikazak proposatu zien txapelketan izena ematea. "Nire arrebarekin parte hartu dut hainbat txapelketa-

tan eta prest zeudela uste nuen", argitu du prestatzaileak.

Gauzak horrela, azken hiru hilabeteetan borroka prestatu dituzte eta horrek barne hartzen du pisua egokitzea. Markel Marcosek bi kilo galdu ditu azken asteotan, Jon Perezek bost kilo eta Julen Nacarinok sei kilo. "Gogorra izan da fisikoki eta psikologikoki, baina oso prest heldu gara txapelketara, ni oso ondo sentitu naiz nire buruarekin eta emaitzak oso positiboak direla uste dut", azaldu du Nacarinok berak.

Kickboxing inklusiboa

Laudioko borrokalarien zapore onak, emaitzekin ez ezik, txapelketan nagusi zen giroarekin ere zirikusia dauka. "Oso gertuko harremanak ziren, senideen artean egongo bagina bezala", adierazi du Jon Perezek.

"Guztiok genuen amets bera, eta nabaritzen zen", azpimarratu du Marcosek. Julen Nacarinok ere azpimarratu du irribartsu borrokatu zela bere aurkariarekin, entrenamendu bat izango balitz bezala.

Horrez gain, seihun parte hartzaileen artean *kickboxing* inklusiboa ere egon zen. "Interesgarria izan da gurpildun aulki batean dagoen jendea borrokan ikustea. Oso ondo egiten zuten", erantsi du Markel Marcosek. "Bai, erakutsi zuten ez dagoela aitzakiarik kirola ez egiteko", erantzun dio Perezek.

Eskarmentu polit horrekin, hirurek helburu berria daukate buruan: martxoaren 9an Donostian jokatuko den Buddha Kopa, hain zuzen.

TXIRRINDULARITZA

Martxoaren 9an abiatuko da XXXIV. Aiarako Bira, berrehun parte hartzaile baino gehiagorekin



Lasterketako liderrak iazko edizioako azken jardunaldian. Aiaraldea.eus

Testua
Aimar Gutierrez Bidarte

14 eta 16 urte bitarteko kade-te mailako txirrindulariak Aiaraldeko errepideen jabe izango dira martxoan. Aiarako Bira lasterketa entzutetsuak XXXIV. edizioa izango du martxoaren 9tik aurrera.

Guztira sei jardunaldik osatuko dute kirol proba, eta Aiaraldeko sei udalerriri bisitatuko ditu, horien artean Orozko, aurtengo edizioako berritasun nagusia.

Euskal Herriko eta Espainiako Estatuko 35 txirrindularitza talde batuko dira eskualdeko errepideetan eta berrehun parte hartzaile baino gehiago. Luyando-Ganzedo taldeak egingo ditu anfitrioi lanak. Badira ere urrutitik etorriko diren taldeak, Kanariar Uharteetatik, esatetako.

Ibilbidea eta egutegia

Martxoaren 9tik martxoaren 24ra, hiru asteburuz jarraian luzatuko da lasterketa. Sei jardunaldiz osatutako lasterketak

Guztira 35 taldek hartuko dute parte bertan, eta lehendabizikoz Orozkoko errepideak zeharkatuko ditu lasterketak

257 kilometroko luzera izango du. Lehenengo jardunaldia Okondon egingo dute, eta azkena Amurrian. Aurtengo berritasun nagusia, ordea, martxoaren 17ko etapan dago. Izan ere, lasterketaren historian lehendabizikoz udalerriri bizkaitar batetik abiatuko da; Orozkotik hain zuzen ere.

Hauek dira Aiarako Bira osatuko duten sei jardunaldiak: martxoak 9, Okondo-Okondo; martxoak 10, Laudio-Laudio; martxoak 16, Arespalditza-Arespalditza (norbanakoen erlojupekoa); martxoak 17, Orozko-Menagarai; martxoak 23, Artziniega-Artziniega, eta, azkenik, martxoak 24 Amurrio-Amurrio. 1990ean egin zuten lasterketaren lehenengo edizioa, eta, geroztik, kadete mailako erreferentziazko lasterketa bilakatu da Espainiako Estatuan. Martxoaren 8an egingo dute aurtengo edizioaren aurkezpen ofiziala, eta ibilbidearen xehetasun guztiak aletuko dituzte.

herriko plaza



**BIDALI
ZURE
ZORION
AGURRA!**

Idatzi zure mezua eta bidali argazkia agurrak@aiaraldea.eus helbidera eta Aiaraldea.eus atarian plazaratuko dugu. Martxoaren 18an argitaratuko da hamabostekariaren hurrengo zenbakia.

Denborapasak

ERRAZA

		6	3					7
		8	6	5			9	
2	1		7	4	9			8
				3				
			4	8	6		7	
8	3	5		9		2		
5		7			3			6
			8			4		
			2					5

OSO ZAILA

1	4		3			7		
8								
	6					1		
	1		7				2	
3		4	8		5		9	
							1	
4		6					8	
		5				3	1	
			4			2		

DENBORAPASEN SOLUZIOAK Sudoku, hitz-gurutzatu eta hitz gezidunen soluzioak webgunean ikusgai: <http://www.aiaraldea.eus/users/denborapasak>

Zozketa



**Errigorako udaberriko
kanpainako produktuen
bi sorta zozkatuko ditu
Aiaraldea Komunikabideak**

Errigorako udaberriko kanpainako produktuen bi sortaren zozketa

Parte hartzeko sartu www.aiaraldea.eus atarian **Zozketaren data:** Martxoak 13, 15:00etan.

KOKO RIKO

IRAKURKETA GUNEA


AMONATXOAK

Idazlea: Charo Pita Villares eta Fatima Alonso

Ilustratzailea: Fatima Alonso

Argitaletxea: Txalaparta

Bi emakume helduren historia contatzen digu ipuinak. Antea eta Filipa batera bizi dira eta gauza asko ez dituzten arren dena konpartitzen dute. Egun batean abentura bat biitzeko aukera izango dute.



GERRATEKO OGIA

Idazlea: Deborah Ellis

Itzultzailea: Aitor Arana

Argitaletxea: Ibaizabal

Adina: 12 urtetatik gora

Liburu bilduma baten lehenengoa da. Parvanaren bizitzaz hitz egiten digu idazleak. Lehenengo liburu honetan umeak Afganistatan duen bizitzaz hitz egiten digu eta zelan mutila dela esan behar duen eskubide gehiago izateko.



JOLAS GUNEA

FAMILIA MILA KOLORE

ZER DA? Katxiporretak ateratako karta jolas bat da. Familia eredu ezberdinak kantzeko jolasa da.

AZALPENA: Milaka jolas egiteko aukera ematen duten kartak dira. Bikote jolasaetik abaituta, familiak osatzeko jolasetara.



ESKULANAK



AZALPENA:

Papin bat sortzeko eskulana proposatzen dugu. Haurrari, berarentzako erreferentia izan den emakume bat aukeratzeko eskatuko zaio. Zergatik den erreferentia galdetuko diogu. Gero emakume horrek zein super potere duen galdetuko diogu eta sortzera habiatuko gara. Materialen artean egur zati bat behar dugunez, proposatzen dizuegu natur gune batera joatea, ibilalditxo bat egitea eta egur zati bat jasotzea lurretik.

MATERIALAK:

- Egur zati bat
- Zeta papera
- Artilea
- Artaziak
- Itsasgarria
- Errotuladoreak

ZELAN EGIN BAT?:

1. Egur zati bat hartu eta ondo garbitu. Mimos aukeratu egur zatia.
2. Paperarekin arropa jarri egurrari. Sortzailea izan, zuk nahi duzun forma eman. Ez tapatu egur zatiaren goiko ladea aurpegia izango baita.
3. Errotulkiekin aurpegia margotu.
4. Nahi beste dekorazio jarri
5. Superheroia denez, paper zati batekin kapa bat egin eta jarri.

Etxean leku interesgarri batean utzi egunero erreferente hori ikusteko.



KOKORIKO
HEZKUNTZA FAKTORIA

Hezkidetzaz

Bizi garen jendarte eredu honetan, haur bat genero roletatik at hezteko utopikoa den zerbait bihurtzen ari da. Gero eta kontzientzia handiagoa omen dugun garaian, ez dira gai honetan aurrerapausorik ematen.

Alde batetik, edozein arropa dendara joan eta, batzuetan esplizituki jartzen ez duen arren, erraz identifikatu daitezke bi gune oso ezberdin, kolore eta marrazki oso ezberdinak dituzte arropetan. Horrela, batzuetan superheroi indartsuak agertzen diren bitartean, besteetan printzesa pinpirinak agertzen dira. Helduetan ere norberari dagokion kutxatxotik ateratzea oso zaila da, gustatu arren, arroparen neurrietan egoten delako arazoa.

Bestetik, galdera amaigabea izaten da ere, haur jaio berri bat ikustean, "ea zer den?". Galdera horren atzetik tratatzeko modu ezberdina dago. Galdetzen dutenei erantzunik jasoko ez dutela esatean, blokeatu egiten dira eta ez dute asmatzen ea zelan haur hori tratatu.

Oparitzen diren jostailuetan ere alde dago, zaintzara bideratutako jostailuak dira batzuentzat eta besteentzat kotxe, eraikuntza edo lan produktiboetara bideratutakoak.


Jendarteak jartzen dituen trabak milaka dira eta egunerokotasunean hor daude. Haurrak sozializatzen hasten direnean, taldearen beharra daukate eta, beraz, taldeko partaide izateko gustuak homogeneizatzen dira, normalean jendartean hegemonikoa den horretara.

Botere harremanik gabeko bestelako jendarte eredu bat nahi badugu, etxeetatik eskoletara paktu sozial bat egin behar dugu gauzak beste modu batean egiteko. Norberaren gune erosotik atera eta jendarte parekide eta hezkidetzailaigo bat sortuko dugu denok pixka bat inplikatur gero.

Ai ene, Pelloziri sutan dago. Bere txakurrak —Alaitz du izena— sekulakoak egin dizkio: pilota hautsi (1), madalenak lapurtu (2), izozkia lurrera bota (3) eta etxean kaka egin (4). Lagun iezaiozu txakur bihurri hori harrapatzen, urrutira ospa egin baino lehen. Zoaz laukiz lauki, aipatutako segida errespetatuz. Banan-banan aurreratu behar dituzu, ezker, eskuin, gora edo behera egin, baina inoiz ez diagonalean. Gero, pasatu dituzun laukietako hizkiak bata bestearen atzetik jarri eta esatera bat agertuko zaizu. Idatz ezazu:



Gure aspaldiko arbasoek ez zuten guk bezala hitz egiten, ez horixe! Baina bada truku bat ama-alaba hauek esaten ari direna ulertzeko.



Mezu gordea

Ezaba itzazu **WWW, YV** eta **QHQ** guztiak eta hortxe agertuko zaizkizu esaldiak.

QHQAMWWWA,
YVAMWWWAYV!
WWWUSQHQTE DUTWWW
SYVEKUQHQLAKOYV
AURWWWKIKUNYVTZA
EGIYVNGO
DUHQDALAWWW
QHQAURWWW

WWWGALURYVVKO
QHQUWMEWWEK
YVEZ DAKIYVTEQH
ZER YVASMAQHQTU
NAGUWWSIEN
ARQHQRETA
BEREQHQGA-
NATZEWWWKO

SOLUZIOAK

Kontra

Aiaraldetik mundura



Mikel Jimenez

JAIOTERRIA
AMURRIO (1996)

BISITATUTAKO TOKIA
ARGENTINAKO RUTA-40

BIDAIAREN XEDEA
BIZIKLETA BATEKIN ARGENTINA ALDERIK ALDE GURUTZATZEA



“Bezperako arazoak konpontzen pasatzen genituen egunak”

Drome Bike taldearekin bidaiatu duzu Argentinan zehar. Nola sortu zenuten proiektua?

2018. urtean gizarte langintza ikasketen baitan, Coimbra joan nintzen Erasmus-programa egitera. Han Drome Bike taldea osatzen duten kideak ezagutu nituen. Lagun horietako batek Argentinako Salta hirian jarraitu zuen ikasketekin, eta iaz bertan ezagututako neska batekin ezondu zen. Laguna bisitatzeko aitzakiarekin kideetako hiruk hegaldia erosi zutenean besteok ez genuen aukerarik izan, bidai egiten ez bagenu damutu egingo ginatekeen. Bizikletarekin bidaiatzea erabaki genuen sei pertsona mugitzeko era errazena zelako.

Zein izan da jarraitu duzuen ibilbidea?

Lagunaren neskalaguna Salta-koa denez, bere gurasoan etxean hogeit hamar egun inguru pasa genituen, eta ondoren, handik hasi genuen ibilbidea. Bereziki, Ruta 40 ibilbidea jarraitu dugu, Andeak zeharkatuz. Helburua Ushuaiaraino iristea zen. Batzuk iritsi dira honezkeror. Nik, etxerako bidea hartu behar izan dut lan kontuengatik. Besteek lana utzi zuten...ez baita eguneror horrelako aukera bat agertzen.

Biziraupena izan da abenturaren ardatzetako bat. Nola moldatu zarete?

Bezperako arazoak konpondu behar genituen, kaleko bizitza ez baita erraza. Hotel edo kanping batera joatea eroso da, baina guk ahal genuenean kale gorrian lo egiten genuen. Overlander aplikazioan lekuak bilatzen genituen

eta eguneroko eginbeharrak guztion artean banatzen genituen, lehenago bukatu eta deskantsatu ahalizateko. Elkarbizitza zaila izan da batzuetan; nekea eta egunerokotasun gogorraren ondorioz. Bizikleta izan da gure etxea, eta lagunak familia. Elkar maite dugunez, ezin ginen haserretu, ezin delako tontakeri batengatik erlazioa apurtu. Elkar ulertzen eta arazoak hitz eginez konpontzen ikasi dugu.

Nolako harrera jaso duzue bertako herritarren partetik?

Harreman ona egin dugu euren etxeetan hartu gaituztenekin, eta alde egiterakoan emozioz ziren. Oraindik horietako askorekin WhatsApp bidez erlazioa mantentzen dugu. Askori bizitzan aurrera joateko indarra eta motibazioa eman diegu.

Natur ingurune asko bisitatu dituzue?

Bidai osoan zehar denetarik ikusi dugu: Mendiak, glaziarrak, desertuak, lakuak, ...denarik. Salta, Jujuy, Valle de la Luna, Fitz Roy, Perito Moreno, Torres del Payne, Magallanes itsasartea... Sei hilabete luze izan dira.

Argentinako gobernu aldaketa bizi izan duzue.

Bai, asko nabaritu da. Gu irailan hara iritsi ginenean Argentinan gaizki zegoen, baina behintzat hango jendearentzat produktuak ez ziren hain garestiak. Aldiz, Milei gobernuan sartzearekin batera, dena okerrera joan da. Herrialdeak diru gehiago irabazteko produktuen prezioak garestitu dituzte. Prezioak igo, baina soldatak mantendu.

ARGENTINA



DESKRIBAPENA

Argentinako Errepublikak Hego Amerikako estatu federala da. Azalerari dagokionez munduko zortzigarren herrialderik handiena da. 1816an independizatu zen Espainiatik. 1980ko hamarkadaz geroztik ekonomia gainbeheran sartu eta inflazioak baldintzatzen du herritarren egunerokoa.

AZALERA

2.780.400 kilometro koadro.

BIZTANLEAK

47,32 milioi biztanle.

HIZKUNTZAK

Gaztelania da hizkuntza ofiziala.


Argitaratzailea:

Aiaraldea Kooperatiba Elkarteak
Tirada: 10.000 ale.
Maiztasuna: Hamabostekaria
Lege gordailua: BI-1230-2013
Posta elektronikoa: egunkaria@aiaraldea.eus agenda@aiaraldea.eus erredakzioa@aiaraldea.eus
Publizitatea: publizitatea@aiaraldea.eus
Tifnoa: 688 62 53 94
Helbidea: Errotari kalea 4-8 pabilioa, Laudio. Araba. 01400
Telefonoak: 94 656 85 54/688 62 59 00
Web-gunea: www.aiaraldea.eus
ERREDAKZIO OHARRA: Aiaraldea Aldizkariak ez du bere gain hartzen iritzi artikuluetan, zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

ESKER BEREZIAK BANATZAILA BOLUNTARIOEI:

Sofia Cisneros, Aitziber Alava, Josu Zabala, Genma Corbella, Endika Arribas, Christian Alemany, Garzen Garaio, Aitor Fernandez, Jon Catalan, Iñaki Larrakoetxea, Jabi Asurmendi, Lander Ria, Xabi Ugalde Alberto Gutierrez, Eunat Molinuevo, Ekhiñe Etxepeteleku

EGUNKARI HAU LAGUNTZEN DUTE:



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

